

hariak

Recreando la educación emancipadora

2020ko ekaina



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin (GLEA) egin da, honako proiektu honen arloan: *Hezkuntza kritikoko prozesuak laguntzeko hausnarketak, eztabaidak eta proposamenak. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra* (2019). Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da soilik, eta ez du nahitaez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M^a Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M^a Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Raquel Calvo Larralde

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

9.zk., 2020ko ekaina

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia: "Northsplaining",

Joseba Sainz de Murieta 

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

Finantzatzaileak:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Cooperación
Española

Argitaratzailea:

emari ta erabil ezazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INBOKORTUO LANBIDEA ETA GARAPENAREN BARRUTIA

UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

aurkibidea



2

editoriala

Pentsamendu dekoloniala "Isolamendu handiaren" garaian. Ezinbesteko eztabaida zibilizazio-trantsiziorako
Juanjo Celorio Díaz

4

sakonean

Europarrok azalduko dizkizugu gauzak
Alicia García Santos eta Pepe Ruiz Osoro

12

solasean

Justiziaren aldeko borroka sozial orok arrazismoaren aurkako kontzientzia eta azterketa hartu behar ditu barne
Yuderkys Espinosa Miñoso

22

ekin lanari

STAND (South Training Action Network of Decoloniality). De-kolonialitateak eragiten
STAND

Entrelazando, bizi- eta erresistentzia-espazioak

Ariel Arango Prada eta Laura Langa Martínez

Bestelako ikerkuntza bat, bestelako hezkuntza baterako, bestelako gizarte baterako

José Ignacio Rivas Flores

28

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak EZLN comparte por la humanidad • Lorena, la de pies ligeros

argitalpenak Modernidades contrahegemónicas • Guardias indígenas, afrodescendientes, campesinas. Trayectos y desafíos

erakundeak Asociación Gitanas Feministas por la Diversidad • Grassroots Global Justice

ezinbesteko agenda Black Barcelona topaketaren 5. urteurrena • Economía Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala

32

matxino artean

Carta del Ejército Zapatista para el mundo

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Pentsamendu dekoloniala "Isolamendu handiaren" garaian. Ezinbesteko eztabaida zibilizazio-trantsiziorako

Koronabirusaren pandemiarekin hasi dugu urte hau, eta "isolamendu handira" eraman gaitu, zeinaren baldintzek eskatzen diguten era kritikoan pentsatzea zer ondorio dituen gaur egun eta izango dituen etorkizunean. Ez egungo zientzia- eta jakintza-eredu nagusia –krezentista, neopositibista, patriarkala eta kolonialista– ez delako agertu eraldaketa sozialerako premia eta ezinbesteko tresna gisa, ezpada, komeni delako birpentsatzea gaur egungo eta etorkizuneko errealitatearen gaineko ikuspegi eraldatzailearen zentzua, ikusita birusa nola hedatu den globalizazioaren erritmoan planeta osoan eta zer ondorio eragin dituen.

Birusa, Apokalipsiaren zaldun zahar eta berrien uztarketa gisa: Gosea, Gerra, Heriotza eta Izurritearen uztarketa. Guztiz aldatu du gizakiaren eguneroko bizitza, etxeetako isolamendua orokortu du kutsatzea eragozteko, eta, ondorioz, ekoizpena eta merkataritza geldiarazi ditu, gero eta modu orokorragoan; Burtsa aldatu du, eta mugak ixtea sustatu du. XXI. mendeko infekzio handi hau, beste batzuen jarraipena dena (SARS, 2013; Hegazti-gripe/H5N1, 2005; A gripea/H1N1, 2009-2010; Ebola, 2014; Ekialde Hurbileko arnas sindromea, 2012-2015; Zika, 2014), ez da krisi ekologiko eta klimatiko izugarriaren aurrekaria baino, zeinaren ondorioak jada igartzen baitira eta, mendeen aurrera egin ahala, eraginak hedatu eta indartu egingo baitira. Era berean, ezin dira ahaztu egiturazkoak diren beste batzuk ere: gosearen epidemia, handitzen ari den desperekotasuna, pobrezia, indarkeria matxista eta patriarkala, eta boterea lortzeko tokiko gerrak, hilkortasun eta indarkeria handiago edo txikiagoekin.

Ez da Historiako lehen infekzio globala. Aurretik egon dira II. mendeko Antonina Izurria (165-180 K.o.), Erromatar Inperio osoan hedatu zena; hala izan zen, halaber, Erdi Aroaren amaierako Izurri Beltza, Eurasia osoan barreiatua (XIII. mendea), eta beste hainbat, ustiapen kolonialaren eta planeta osoko inperialismoaren erritmoan hedatzen joan zirenak, gerra-zikloak eta urez nahiz itsasoz egindako borrokaldi hedakorrek medio. Horrenbestez, ez da lehenengoa, baina bai da munduko herritarrak isolatu, konfinatu eta indibidualizatu dituen lehena, etxeetan, auzoetan, hirietan, lurraldeetan eta eskualdeetan isolatu, konfinatu eta indibidualizatu ere. Eta hori guztia, pertsonak zaintzeko ekintza kolektibo itzelen premia agerian gelditzen ari den unean. Hein batean, zerbitzu publikoek artatzen dituzten zainketak dira, baina komunitate osoaren arreta eskatzen dute, nahiz eta, beste behin ere, emakumezkoak diren, eta emakumezko zaurgarrienak batez ere, horiek beren gain hartzen dituztenak. Herritarren ekimen sozialak artikulatu ditu ekintza kolektiboak: txalo-jotzeak balkoietan egunero, zaintza komunean laguntzen duten boluntario-sareak, komunikazio birtuala areagotzea, hainbat baliabide aske eta dohainik trukitzea.

Agertoki orwelldar honek, zeinean kontrola areagotu den eta hertsadura-aparatuek espazio publikoa are gehiago hartu duten osasun kolektiboa zaindu eta kutsadura murrizteko aitzakiaz, shockaren agertoki dual eta eskizofreniko baten aurrean jarri gaitu. Aldi berean gertatzen dira masen kontrola eta hertsadura –obedientzia masibo indibidualizatuaren bidez– eta zainketarako eta bizitzarako eskubidearen babesak. Eskubide indibiduala eta eskubide komuna. "Segurtasuna askatasunak mugatzearen truke" dioen diskurtso zaharraren eta "Masen kontrola eta hertsadura, osasun indibidualaren eta kolektiboaren truke" dioen diskurtsoaren artean gabiltza. Bizitza soziala geldiarazi, birusaren hedatzea kontrolatzeko. Kutsatzeko beldurraren kudeaketa, baina fasearen ondorengo atzeraldiaren, krisiaren eta langabeziaren hedapenarekiko beldurra gehituta.

Horrek guztiak aditzera ematen du kapitalismo estraktibista, merkantilista eta esplotatzaileak planetan modu hegemonikoan ezarri duen krisia, eta agerian uzten du zer ezgaitasun, disfuntzionaltasun, injustizia eta arrisku dituen eta zer jasanezina den, planetaren bizitzari eta ekosistemari dagokienez.

Hori guztia errotik kritikatu dute, alderdi ekonomiko, politiko, epistemiko eta kulturalak aintzat hartuta, borroka sozialetik, feministatik, ekologistatik, nekazarienetik, laboraletik eta demokratizatzailetik eta abarretatik

sortutako mugimenduek; izan ere, kolonialismoak dituen eragin guztiak salatzen dituzte, baina baita zientziaren eta pentsamenduaren eremuan duen arrastoa ere.

Pentsamendu dekoloniala eta *beste* zientzia baten proiektua pentsamendu feminista, dekrezentista eta ekologisten lanketek zeharkatzen dituzten eta zeharkatu behar dituzten osagai bihurtu dira. Aliantza estrategikoak, ekintzarako eta erresistentziari, esperimentazioari, intsumisioari, erresilientziari eta kooperazioari lotutako jakintzak berreraikitzeke.

Hala ere, ezinbesteko bihurtu da, halaber, hezkuntzarekin lotzea birus-ziklo honek eragin duen traumatismo sozial eta kultural handi hau, eta premia sortu du ekiteko eta beste mundu bat, beste zibilizazio bat, beste eredu bidezko eta beharrezko bat pentsatzeko. Nagusi den ereduaren hegemoniari aurre egin behar zaio, nahiz eta ez desagertzeko kontra egiten duen eta doiketa txikiak txertatzen dituen ezer ez dadin aldatu. Izan ere, *bestelako mundu posible batzuk* nahi, landu eta desio ditugunez gero, agerian utzi beharko genuke ikuspegi dekolonialak zer potentzialitate generatibo eta alternatibo duen.

Alabaina, hori ez da eginda dagoen zeregin bat, eta prozesu bat baino ezin du izan –aurrerapausoak eta atzerapausoak dituen–, eta eraldatzeko dinamiketan parte hartzen duten mugimenduekin egindako topaketak, konfluentziak, eztabaidak eta konpromisoak ezinbestekoak badira ere, ezinbestekoak dira horrelakoak zientzian lan egiten dutenekin ere, pentsamendu *pluri-bertso* eta *senti-pentsatzaile* eta guzti, ekinean ari diren komunitateekin konpromisoa dutenekin.

Pentsamendu eta ikerketa feminista eta transkulturala dago; ikerketa ekologista eta dekrezentista, eta ekonomia zirkularrari eta tokiko burujabetzari buruzko ikerketa; epistemologia kritikoak ditugu, Ikerketa-Ekintza-Parte-hartzerako metodologiak ditugu; mintegiak eta are biltzarrak ere, eraikuntza zientifikorako bide berriak bilatzeko.

Sare garrantzitsu bat eta ernamuin izan zena ere izan dugu, esate baterako, "Modernitate/Kolonialitatea Proiektua" (1998–2008), zeinak oinarriak jarri zituen bi fenomeno funtsak lotzeko, argi eta garbi lotuta baitaude. Modernitatearen sorrera koloniala izan zen intrintsekoki, ekonomiaren, politikaren eta gizartearen dominazio praktiketan ez ezik, epistemologiari dagokionez ere bai. Modernitatearen proiektuaren hegemonia, metropolieta sortua eta mundura hedatua, ez zen kolonialista izan soilik fase industrializatzailean, XVIII. eta XIX. mendeetako inperialismoan –hala adierazten zuen kritika antkolonialistak–, kolonialista izan baitzen sorreratik bertatik, XV. eta XVI. mendeetan, Ekonomia-Mundua sortu zuenetik.

Nolanahi ere, hori egia izanagatik, konfluentzien ildoak sustatzeko, topaketak eta eztabaidak behar dira tradizioen, mugimenduen, ikerketako eta zientziako eremuko, eta hezkuntzaren eta komunikazioaren alorren artean; erresistentzia aukera eta eremu orotan, kulturaren aldarrikapenetik eta esperimentaziotik, unibertsitatetik eta oinarritzko mugimenduetatik, eremu zientifiko/teknologiko eta artistikotik... Mugak igaro, jokaera fisikoak eta epistemologikoak nahastu, jakintza alorren artean, ekintzaren eta teoriaren artean, aktibisten eta intelektualen artean... Izan ere, aurrean ditugun problematika handiei erantzuteko, ezinbestekoa da gaur egun nagusi den ereduaren arrakalak sortzea. Hegemoniari aurka egiten ari da, eta horren iturrietako bat zera da: bizi- eta iraunkortasun-eredu erabat demokratikoak eskatzen dituzten planetako herri, kultura eta espazio gehienen eskaera dekolonialak.

Horregatik guztiagatik, zera dekoloniala, bai ekintzan bai pentsamenduan, mugimendu eta eragile eraldatzaileentzako erronka kolektiboa da, baina baita Akademia kritikoarentzat ere. Akademiak mugitu egin behar du, eta Uni-bertsitatetik Multi-bertsitatera ireki, elitismo akademikotik konpromiso eta laguntza sozialera igaro; funtsean, botere akademikotik gehiengo sozialen jakintzara igaro, gehiengo sozialekin. Trantsizioan dagoen proiektua da, baina birdimentsionatu, interkomunikatu eta ahaldu egin behar dena, baita "Isolamendu handiaren" garaian ere.

Europarrok azalduko dizkizugu gauzak

Alicia García Santos eta Pepe Ruiz Osoro (*Feminismos Desazkundera*). Kolektiboak desazkunderan ikuspegi feminista txertatzeko lan egiten du, ekonomia feministaren, ekofeminismo konstruktibista ez esentzialistaren eta Hegoaldeko pentsamendu eta praktika kritikoen ekarpenekin hitz eginda. Alicia García Santos *Desazkundera* euskal kolektibo dekrezentistaren kidea da hasiera-hasieratik. Arlo aktibistatik, *La Posada de los Abrazos* elkartearen ere parte hartzen du aktiboki. Zuzenbidean lizentziaduna da, *El Correo* egunkariaren eta UPV/EHUreren Kazetaritza Masterra egin zuen, eta UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra ere ikasi du. Pepe Ruiz Osoro *Feminismos Desazkundera* taldeko kidea da. Berak ere aktibismotik abiatuta Herri Hezkuntzarekin eta Elikagai Burujabetzaren eraikuntzarekin lotutako mugimenduetan parte hartzen du aktiboki. Ingurumen Zientzietan eta Kazetaritzan lizentziaduna da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuko Globalizazio eta Garapeneko masterra egin du.

Abiapuntua: *Gizonek azalduko dizkidate gauzak*

2008. urtean, Rebecca Solnit Estatu Batuetako idazle eta ekintzaileak saiakera labur bat argitaratu zuen formatu digitalean, eta birala egin zen egun gutxiren buruan. Oihartzun haren gakoa izan zen, zalantzarik gabe, idatziak oso lotura argia zuela emakumeek geuretzat identifikatu ohi dugun esperientzia batekin: gizonezkoek gauzak azaltzea, paternalismoa eta doinu etorkorrez, sarritan gauza horiei buruz gure solaskideak baino askoz ere gehiago dakigularik ere. Testuak izenburu ironikoa zuen, *Gizonezkoek azalduko dizkidate gauzak*, eta sutsu erantzun zioten gizon askok, zeinak hasi baitziren emakumei azaltzen ez soilik ez zeudela beren eguneroko bizi esperientzia aditzera emateko zilegituta baizik eta fenomeno hori ez zegoela generoak markatua, beraiei ere maiz gertatu izan baitzaizkien halakoak. Betiko leloa.

Solniten testuak ezin hobeki azaleratzen du giza pentsamendua egituratzen duten eta maskulinitateari izaera aktiboa eta feminitateari izaera pasiboa esleitzen dieten kategoria dualista hierarkizatu eta baztertzailerak (Héritier, 2007). Natural usteko

iruditeria horren arabera, elkarriketa batean jakintza maskulinoak *argituak* izatea da emakumeen eginkizun nagusia. Saiakera hartatik abiatuta, *mansplaining*¹ hitza sortu zen, *man* hitzaren -gizona, ingelesez- eta *to explain* aditzaren -azaldu, ingelesez- arteko kontrakzioa, zeina definitzen baitu Oxford hiztegiak honela: "(zerbait) norbaiti -emakume bati, oro har- modu adigarri, etorkor edo paternalistaz azaltzeko jarrera -gizon batena-". Kontzeptu horrek barne hartzen du ideia hau: "ekintza bat, zeinetan entzungor egiten baitzaie delako gai horri buruz emakumeak dituen ezagutzei, inteligentziari eta ohiturari, emakumezko solaskidea infantilizatuz" (Paula Martín, hemen: Solnit, 2016).

Hitzak aditzera ematen du norberaren izenean, norberaren baitatik, hitz egiteko eskubidearen ukazioa dela patriarkatuaren zapalkuntza bektore nagusietakoa², eta arrasto luzea du ukazio horrek histo-

1 Fundéuk *machoexplicación* hitza proposatu zuen hitz hori gaztelaniara itzultzeko; euskaraz, *arazalpen*.

2 Hitza singularrean erabiltzen dugun arren, ez dugu esan nahi patriarkatua bakarra denik; izan ere, sistema horrek konfigurazio jakin bat hartzen du hedatzen den gizarte bakoitzean.

rian zehar. Adibide gisa aipa daitezke Balmasedako 1575eko ordenantzak (Bizkaia), non ezartzen baita hitza nahiz espazio publikoa ukatuak zaizkiela emakumeei:

"Ezkundu nahiz ezkongabe, aurrerantzean ez daitezela emakumeak egon binaka eserita beren etxeetako atari aurrean, eta ohitura izan delarik atari berean elkartzeko sei, zortzi nahiz hamar emakume, paretik igarotzen zirenez murmurika aritzera, suspertu zitezkeelarik beste oker batzuk, emakume bakoitza egon dadila atari barruan geld, eta ez dezala inork murmurikatu, 200 maraiko zigorra ezarriko baitzen bestela".

Hitzari buruzko iritziak gorabehera, eta Solnitek berak kolokan jartzen badu ere, hitz egokia da, gaitasuna duen heinean esperientzia orokor baina ezkutuko bat izendatzeko eta aditzera emateko. Celia Amorós filosofo feministak zioen (2006) kontzeptualizatzea politizatzea dela; eta, hain zuzen ere, jardunbide zapaltzaileei izena jartzea dela jardunbide horiek deuseztatzeko lehen urratsa. Horregatik, azken urteetan, hitz horren tankera duten beste hainbat hitz sortu dira, nabarmentzeko heteropatriarkatuaren *-heterosplaining* edo *cissplaining-*, arrazakeriaren *-whitesplaining*, payoexplicación - nahiz Iparra-Hegoa dominazioaren *-northsplaining-* beste hainbat alderdi. Eta, hain zuzen, puntu honetantxe egin nahi dugu gogoeta: ekintzaile (eko)feminista eta antiheteropatriarkal zuri eta iparraldetar gisa, entrenamendu luzea izan dugu gugan gauzatzen diren zapalkuntzak antzematen eta horiek salatzen; baina, seguru asko, askoz ere zailagoa zaigu ikusaraztea zer-nolako boterea gauzatzen dugun gure pribilegio urbanotik, arraza eta klase pribilegioetatik, nazionalitate pribilegiotik eta abarretatik. Hortaz, has gaitezen geure buruetatik.

Nor gara?

2018an Bilbon egin zen [Bizitza jasangarrien aldeko herri-auzitegiaren](#) inaugurazio hitzaldian Tita Godínez guatemalar ekintzaileak esan zuenez, "gorputz sexualizatu, arrazializatu, urbanizatu, indibidualizatu, kolonizatu, merkantilizatu eta pribatizatuak" bizitzen ditugu. Haren hitzaldia entzunez, gure buruari galdetu genion testu honen egileak subjektu kolektibo horren parte ote garen; eta ezin baiezkoa erantzun galdera horri: oso bestelako moduan eraikiak dira gure identitateak; iraganeko eta gaurko kolonizazioen eta arrazakeria historiko eta egiturazkoaren onuradun diren gizarteek ematen dizkiguten pribile-

gioetatik, hain zuzen. (Eko)feminista konstruktibista aitortzen dugu gure burua, eta, hala izanik, kritika egiten diogu natura-lurraldeari eta feminizatua den orori ezartzen zaizkien dominazio harremanei. Anti-kapitalista aitortzen dugu gure burua, kapitalismoa ulerturik gainbalioa ateratzen duen sistema gisa, ez ondasun komunak ustiatuz soilik, gure gorputzak ere ustiatuz baizik, lan merkantilizatuaren nahiz merkantilizatu gabeen bidez, zeinak egiten baitira intentsitate maila desberdinez, kasuan kasuko jatorri, klase, arrazializazio, genero edo dibertsitate funtzionalaren arabera.

Artikulu honetan, gure ikuspegia aztertu nahi dugu, nondik begiratzen dugun: begiratzen dugu patriarkatuak ezartzen digun astigmatismotik, zeinak eratzen baitu begirada androzentriko eta antropozentriko bat, eta gure zilborretik haratago ikusten uzten ez digun miopia mendebaldar kolonialistatik. Jakinik ezinezkoa izango dela bi motxila horien zama alde batera uztea, aitortu beharrean gaude gure autokritika beti izango dela nahi genukeen baino azalekoagoa; baina, hala ere, prest gaude bide hori ibiltzeko, barne azterketako ariketa amaigabe bati helduta.

Europarrok azalduko dizkizuegu gauzak

Has gaitezen hasieratik: *northsplaining* hitza hitz horrek salatu nahi duenaren ariketa bat da. Eta, horren erakusgarri, hementxe gaude gu, Ipar Globaleko herrialde kolonialista eta arrazistetan sortuak, hitz anglosaxoi bat erabiliz azaldu nahian zapaltzaile modura baino bizi ez dugun esperientzia bat. Bada, toki horretatik begiratzen dugu, hain zuzen: eta, gure pribilegio mendebaldarren pulpitutik, saiatuko gara ikuspen ariketa bat egiten, kokatua eta partziala



Irudia: Desazkundera.

“Bada arreta gehiago jarri beharko geniokeen beste jardunbide bat, sotila eta askotan oharkabeen igarotzen zaiguna: gure errealitatearekin alderaketan eginez “Hegoaldeko gure kideei” beren errealitatea azaltzeko ohitura”

(Haraway, 1991), izan dadin, batez ere, beste posizio batzuetatik eztabaidan parte hartzeko proposamen bat. Testu honekin, kolokan jarri nahi ditugu gure jardunbide diskurtsiboak, eta gogoetarako gonbita egin nahi diegu beren helburuen artean Iparra-Hegoa dominazio ardatzaren inguruko hierarkia epistemologiko, sinboliko eta materialei aurre egitea duten Ipar Globaleko gizarte mugimenduei eta organizazioei.

Bistan da kolonizazioaren esperientziak eraldatu egin dituela erlazionatzeko gure moduak: hala, Restrepo y Rojasen arabera (2010), kolonialismoa aztertu beharra dago esperientzia egituratzaile sakon gisa harturik, esperientzia egituratzailea ez soilik kolonizatutakoarentzat, *baita kolonizatzailearentzat ere*. Hain zuzen ere, aitortza horrek ematen digu gure jardunbideak kolokan jartzeko zilegitasuna. Ariketa hori egitean, gogora etorri zaizkigu alarma seinalez beteriko ezin konta ahala oroitzen, ez soilik harreman kolonialetatik eratorritako gure botereaz mintzo direnak, baizik eta agerian uzten dutenak nola gailendu diren arrazializazioa, klasea eta izaera urbanoa, besteak beste, berdintasunezkoak izatea nahi genuen harreman batzuetan.

Mansplaining hitzaren garapen teorikoa gorabehera, *northsplaining* gaizki esanari buruzko erreferentzien bila hasita, unean uneko adibide batzuk baino ez ditugu aurkitu, gizarte sareetan gehienak. Eta, hain zuzen ere, urritasun horrek bultzatu gaitu termino horretara hurbiltzeko ahalegina egitera. Esan dezagun, hasi aurretik, hitz horrekin ez dugula adierazi nahi kolonialitatean oinarrituriko botere harreman guztiei buruzko garapen teorikoa edo Hego Globalekiko gure elkarrizketa faltsuan gauza litezkeen jardunbideen dibertsitatea: kultura jabekuntzak, ikusiezintasunak, gure agenden gehiegizko erakusketa, bokazio unibertsalaz errealitate partzialak aurkezte... Aitzitik, esan dezakegu *iparrazalpenaren* jardunbidea kolonialitatearen alderdi bat besterik ez

dela, kolonialitatea honela ulerturik: “botere patroia bat, lurralde, arraza, kultura eta *episteme* hierarkien naturalizazioaren bidez diharduena, aukera emanez dominazio erlazioak erreproduzitzeko; botere patroia horrek bermatu egiten du ez soilik mundu osoan gizaki batzuek beste batzuk esplotatzea, baita *horrela dominatuak eta esplotatuak direnen ezagutza, esperientzia eta bizimoduaren mendeakotzea eta obliterazioa ere*” (Restrepo y Rojas, 2010) (letra etzana gurea da).

Hortaz, testu honetan, gure xedea da *iparrazalpenaren* kontzeptua bera ulertzea, erreparatuz ez kolonialitate kultural eta epistemologikoaren ertz guztiei, honako honi baizik: Hego Globalean jaiotakoek gauza jakin batzuei buruz duten ezagutza aztertzeko lanik ere hartu gabe Ipar Globalean jaiotako pertsonen haiei *gauzak azaltzeko* jardunbide zehatza. Gainera, jardunbide horrek dakartzan ondorioez arituko gara, baita hark oinarri dituen iruditeriez ere. Jardunbide horrek eskandaluzko adierazpenak izan ditzake: batzuetan, *gauzak azaltzen* ditugu, gauza edo gai horiei buruzko inolako fidagarritasunik izan gabe; beste batzuetan, gure buruari zilegitasuna aitortzen diogu Hego Globaleko gure solaskideen errealitateari, historiari edo inguruabarrei buruzko eskola magistralak emateko. Jakina, ez gara ari elkarrizketaren aukera ukatzen; baina nabarmendu nahi dugu nola garamatza inertzia horrek, askotan, besteak baino gehiago dakigula uste izatera, Ipar Globaleko pertsonak izateak eragindako jarrera kontziente nahiz inkontziente batek bultzatuta.

Kontzeptu honi buruzko gogoetan, muturreko bi tipologia bereizi ditugu beren ezaugarriei eta gauzatu ohi diren gizarte espazioei erreparatuta. Beharbada, aise identifikatuko dugu *northsplaining* larderiak hori, zeinaren arabera jotzen duen pertsona batek Ipar Globalekoa izate hutsagatik ezagutza kualifikatuak dituela jatorriz Hego Globalekoa den beste batek baino. Ekintzailatzako espazio kritiko askotan, politikoki desagokitzat hartzen da *iparrazalpen* mota hori, eta saihestu egin ohi da. Baina, aldiz, bada arreta gehiago jarri beharko geniokeen beste jardunbide bat, sotila eta askotan oharkabeen igarotzen zaiguna: gure errealitatearekin alderaketan eginez “Hegoaldeko gure kideei” beren errealitatea azaltzeko ohitura. Batzuetan, *northsplaining* aliatuaren tankera har dezake, baina berdin-berdin da larderiakoa, erreferentziatzen baititu gure eskema, gure aurrekontzeptuak eta gure esperientzia (oro har, urbanoa, akademikoa, zuria...). Batzuetan, gurea baino erremeriorik gabe okerragotzen aur-

kezten dugu Hego Globalaren errealitatea, ikus-ezintasunera eramanez borroka, erresistentzia eta ahalmen asko. Beste batzuetan, berriz, haiek eta gu *alde berean gaudela* erabaki izan dugu, gure solaskideei galdetzeko lanik ere hartu gabe. Are gehiago, batzuetan, badaezpada ere galdetu gabe.

Hala, ohikoa izaten da, Ipar eta Hego Globaleko eskubide urraketak salatzen diren topaleku eta ez-tabaida guneeetan, izatez elkarren oso bestelakoak diren errealitateak uztartzea, kontua izugarri sinplifikatuta. Pentsa dezagun jardunaldi batzuetan herrialde askotako ekintzaileen eskubideei buruz ari garela: benetan parekagarriak al dira Mozal Legeak errepresaliatua izatea eta hilean kide bat hiltzen duten elkarte edo kolektibo batean borrokan aritzea?³ Herrien arteko batasuna bultzatzeko eta borroka kolektiboak artikulatzeko asmoagatik bada ere, ikusezin gelditzen dira abiaburuko desberdintasunak eta horien ondorioak, eta, aldi berean, desaktibatu egiten dira Hego Globalaren diskurtso guztiak, gure esperientziekin parekatzen ditugularik: "Bai, Iparrak esplotatu egin zaituzte, baina ez Ipar osoak: Iparrean ere bada zuen egoera ulertzen duenik eta egoera zailean bizi denik, kapitalismo global berak zapaltzen gaitu eta", pentsatu ohi dugu. Ikuspegi horrekin konpara daiteke emakumeak beren zapalkuntzari buruz ari direnean gizon askok ematen duten erantzun korporatiboa: "*Not all men*"⁴ (Solnit, 2016). Ukaezina da paralelismo nabarmena dutela gizonak beren burua dominazio patriarkaletik kanpo uzteko jarrera horrek –ahaztuz gizon guztiek dituztela, gizon izateagatik, pribilegio horiek– eta gure burua dominazio kolonialek kanpo uzteko jardunbideak: Ipar Globaletik ere onura ateratzen dugu Hegoaren esplotaziotik eta esplotazio horri eusten laguntzen dugu egunerokotasunean. Patriarkatu(a)k edo kolonialitatea gisako kontzeptuek ikaragarritzko azalpen indarra dute, baina ezin dugu ahaztu erakunde horiek ezin dutela beren kasa zutik iraun eta pribilegiozko posizioetan dauden pertsonak iraunarazten dituztela, egunez egun, haien planteamenduekin ados egon nahiz ez.

3 Global Witness behatokiaren "Enemigos del Estado" txostenaren arabera (2019ko uztaila), "astean hiru lagunetik gora hil zituzten 2018an, eta ezin konta ahala kriminalizatu, beren lurraldea eta gure ingurumena defendatzeagatik".

<www.globalwitness.org/en/campaigns/environmental-activists/enemigos-del-estado>

4 Ez gizon guztiak.

Seguru asko, aliatua izendatu dugun bigarren mota horretako *iparrazalpenaren* garapena lotuta dago klase batasun internazionalista baten bilaketarekin; baina, maiz, batasun horren bilaketan, ez dira aintzat hartzen zapalkuntzak jasaten dituzten klaseen barruko genero, arrazializazio eta jatorri desberdintasunak. Gure buruari galdetzen diogu zergatik dugun joera identifikaziotik elkarganatzeko, eta ez gure arteko desberdintasunen eta dibertsitatearen aitortzatik. Zergatik tira egiten dugu errealitatetik, errealitatea desitxuratu eta bat datozen narratibak sortu arte? Ez al gara gai gureen antzeko baldintzetan ez dauden pertsonetikiko solidaritatea adierazteko?

Badago "batasunaren" halako idealizazio bat, gizarte mugimenduetan oso ohikoa eta problematizatu beharrekoa. Batasunerako deia egiten ari dena zenbateraino ez da bilatzen ari "eskura duen botere guztia sendotzea, zabaltzea eta monopolizatzea" (Vidarte, 2007:46)? Gogoeta egin beharko genuke homogeneizazioa saihesterik lortzen ez duten batasun politikoko estrategien isilunez. Vidarteren hitzetan esanda, "batasunak beti dakarkie onura handiagoa boteretsuei, bat egiten dutenei baino (...)" eta, aldiz, "besteak anexionatu, xurgatu, fagozitu, mapatik ezabatu egiten dira".

Iparrazalpenaren ondorio batzuk

Pierre Bourdieuk zioenez (2000), dominazio sistemek irauteko gakoetako bat da dominatzaileak eta dominatuak ikuspegi bera eta unibertso sinboliko bera dutela. Hala, bada, *iparrazalpenaren* ondorio berehalakoenetako bat da lagundu egiten duela *status-quo*a mantentzen, mendekotutako posizioetatik diskurtsoak eraikitzen "ausartzen" diren pertsonak dagokien tokira berbideratzen dituelako: isiltasunera. Esan liteke diskurtsoaren bidez boterea gauzatzean solaskideak (batzuetan, emakumezkoa) larderiak diharduela, jatorri, klase edo genero pribilegioak, besteak beste, baliatzen dituelako, ez-tabaidan edonolako kompetentzia maila duela ere. Rebecca Solnitek bere saiakeran adierazi bezala, norberaren pribilegioen defentsa estalia adierazten duen jarrera hori da, hain zuzen ere, emakumei adierazpena zailtzen diena.

Aldi berean, *iparrazalpenaren* jardunbideek isiltasunera daramatzate Hego Globaleko herriak, eta, María Luisa Femenías filosofo feministak *Esbozo de un feminismo latinoamericano* bere obran dioenez, "hizkuntza eta izendatzea boterea diren mundu ba-

“Kapitalismoari, arrazakeriari, kolonialismoari eta patriarkatuari eusten dioten egitura epistemologikoak finkatzeko modu bat da alteritate gisa izendatutakoak mundua azaltzen duen elkarrizketan beren ahotsa azalarazteko ahalmenaz gabetzea”

tean, zapalkuntza eta indarkeria da isiltasuna,” (hemen aipatua: Tapia González, 2018). Hain zuzen ere, mendekotasuneko posizioen batean kokatzen denak barneratu egiten du, modu inkontzientean maiz, gizarte sistemak esleitzen dion tokia, segurtasunik ez eta nork bere burua mugatzea eragiten baitu horrek, Solnitek azaldu bezala. Era berean, hitza eta espazio publikoa bereak direla badakien horrek konfiantza gehiegi har dezake bere diskurtsoan, eta ezjakintasunaren erakustaldi izugarriak egitera bultzatzen dezake horrek –hori bai, erabateko erraztasun eta ziurtasunaz–, baina nekez utziko dituzte agerian gabezia horiek horretarako gizarte zilegitasunik ez duten haiek.

Gauzak azaltzen dizkiguten gizonak etengabe gogorazten digute tokiz kanpo gaudela espazio publikoan eta ez gairela gai espazio horrekin zerikusia duten gaietan eta, horregatik, gure hitza zuzendu, osatu eta argitu beharra dagoela. Gainera, ez dugu ahaztu behar boterea duen horrek bere gaitasuna erakusteko gehien komeni zaion norabidea ematen diela eztabaidei. Halaber, *northsplaining* edo *iparrazalpenak* agerian uzten du beren burua definitzeko eta besteak definitzeko zilegitasuna duten gizabanakoak ez direla soilik gizonak emakumeei buruz –eta, nagusiki, gaztelan BBVA deritzona: zuria, burgesa, gizona eta heldua–, baita Ipar Globaleko pertsonak Hego Globaleko pertsonen buruz ere; izan ere, erlazio horren azpian, besteak beste jakintza-boterearen bidez –Michel Foucaultek garatutako kontzeptua– adierazitako kolonialismoaren historia luzea dago. Azken batean, kapitalismoari, arrazakeriari, kolonialismoari eta patriarkatuari eusten dioten egitura epistemologikoak finkatzeko modu bat da alteritate gisa izendatutakoak mundua azaltzen duen elkarrizketan beren ahotsa azalarazteko ahalmenaz gabetzea.

Komunikazio *intersubjektibo* baten alde

Gure buruari galde diezaiokegu ea biderik zabal daitekeen orotariko dominazioei eusten dieten epistemologiak kolokan jartzeko eta deuseztatzeko, *elkarrizketa ekifonikoen* bidez, zeinetan ahots guztiek baitute balio bera, eta zeinak izan behar baitute, gainera, kulturartekoak. Prozesu horrek, jakina, hainbat zailtasun topatuko ditu Gayatri Chakravorty Spivaken kritika postkolonialaren arabera (1998). Hain zuzen ere, zera galdetzen dio egileak bere buruari: “Hitz egin al dezake, benetan, mendeko subjektuak, beste ertzetik bere ahotsa goratuz, legedi inperialistaren biolentzia epistemikoaren zirkuituaren barruan nahiz kanpoan gizarte kapitalistan sustatzen den nazioarteko lan banaketa batean murgilduta egonik?” Bere saiakera ospetsuan, indiar filosofoak dio enuntziario gunerik ezak eragozten diela hitz egitea mendeko gizabanakoei, ezinezkoa baitzaie mendebaldeko hizkuntza ikastea eta, aldi berean, beren testuinguruan irautea; baina aipatu nahi ditugu zenbait saiakera, mendebaldeko pentsamendua desorekatzea ardatz dutenak. Gure ikuspegitik, mendekotutako subjektuak bere ahotsaz hitz egin dezake, non eta ez dituen erabiltzen diskurtso kategoria kolonialak, Audre Lorde afrikarren ondorengo idazle eta borrokalari feminista lesbianaaren proposamenaren ildotik (2003): “Nagusiares tresnek ez dute inola ere eraitsiko nagusiaren etxea”. Bestalde, iradokitzailea iruditzen zaigu Tania Cruz Hernández ekintzailearen ekarpena⁵; hain zuzen ere, gai honen alderdi etikoa aipatzen du, esanez mendekotutako gizabanakoak baduela hitz egiterik, baina behin gramatika morala aldatuta.

Hain zuzen ere, dominazioari eusten dioten egiturak kolokan jartzeko modua izan daiteke Hego Globalera begira jartzea. Mendebaldeko kulturak halako unibertsaltasun bat aitortu dio bere buruari, eta horrek eragotzi egiten digu bestelako kosmobisio batzuk ikustea, zeinetan izakien –gizakien nahiz bestelako izakien– artean ezartzen diren erlazioek ez baitiote nahitaez hierarkia bati jarraitzen. Adibidez, hizkuntza indoeuoparretan gertatzen denaz bestela, Amerikako jatorrizko hizkuntza batzuetan ez dago erlazio bertikalik esaten duen subjektuaren eta entzuten duen subjektuaren artean; aitzitik,

5 “Repensar la práctica política de los colectivos en el contexto del neoextractivismo patriarcal” solasaldia. Feminismos Desazkundeak antolatua, 2019/03/29.

kidekoen arteko elkarrizketa eskatzen du komunikazioak, elkarrizketa horretan dutelarik alde guztiek besteei zer erakutsi eta besteengandik zer ikasi, Aimé Tapia Gonzálezek aztertu bezala (2018). Hain zuzen ere, esperientzien eta ikuspegi pluraltasunak aberasten du eztabaida *komunikazio intersubjektibo* –hau da, subjektuz subjektukakohonetan. Eta hori hala izatea ahalbidetzen du hizkuntza horien gramatikan ez egoteak objektu zuzenik eta zehar objekturik; aitzitik, ekintza batean bi subjektu edo gehiagok dihardute elkarrekin. Hala, "esan nizuen" esaldia "esan nizuen. Entzun zenuten" itzuliko litzateke maia-tojolabalera⁶. Horrenbestez, hizkuntza horretan, "subjektu izatea ez da soilik askoren arteko aukera bat, aukera bakarra baizik. Guztiok gara subjektu".

Tapia Gonzálezen arabera, kosmobisio elkarren desberdin horien ondorioak agerian gelditzen dira ez soilik giza komunikazioari dagokionez, baita krisi ekologikoari dagokionez ere; izan ere, begirada mendealdarrarentzat, ustiatzeko objektua da natura, eta, aldiz, jatorrizko herri horientzat, organismo bat zeinarekin baitaude konektatuta. Komunikazio alderdiei soilik erreparatzen badiegu, esatea, entzutea, ulertzea eta errespetatzea eskatzen du *elkarrizketa intersubjektiboak*, eta, aldiz, hizkuntza indoeuroparretan, erlazio bertikal bat ezartzen da, non "episteme dominanteak aditzera ematen baitu bere iritzia baina ez baititu entzuten eta, beraz, ezta ulertzen eta errespetatzen ere beste episteme batzuk". Agian,



Irudia: Kristina Sáez Morkecho.

“Komunikazio alderdiei soilik erreparatzen badiegu, esatea, entzutea, ulertzea eta errespetatzea eskatzen du *elkarrizketa intersubjektiboak*”

horixe bide da gakoetako bat hizpide dugun gai honetan.

Asmoa bada, adibidez, feminismoetatik, kulturarteko elkarrizketa *ekifonikoak* eraikitzea, proposatzen dugu arreta berezia ematea gure entzute ahalmena garatzeari; izan ere, Tapia Gonzálezek dioen bezala (2018), ez da egongo kulturen arteko erlazioetan etikarik, baldin eta, abiapuntu gisa, kultura horietako batek besteak baino hobetzat baitu bere burua eta uko egiten badio besteak entzuteari eta haiengandik ikasteari.

Entzutea, premiazko eginbeharra

Gure buruaren azterketa egitean, galdera hauetako asko sortu zaizkigu. Zenbateraino ez ote gara iraunkortu kidekoen arteko "bakarrizketara" mugatutako espazioetan? Ez ote dago nolabaiteko mesianismo bat pentsatzean gure latitudeetan agertutako gogoetak izango direla guk sorrarazten lagundutako kaosari irtenbidea emango dietenak? Gogoan al dugu espazioren bat Ipar Globalaren ekologismo urbanitaren berezko mugei buruzko gogoetara bideratua? Beste herriei ez entzute horrek ez ote du adierazten aitzindaritzia ideologiko-kultural-zibilizatorioa guk eramateari uztearekiko erresistentzia? Nork daki munduaren salbatzaile agertzen garen hainbeste kontakizun entzuten ohiturik ez ote garen ari ahal dugun guztia egiten film honetan superheroiazen papera inork kendu ez diezagun... Beharbada, gogoeta emankorrak egiteko bidea emango dizute zuei ere galdera horiek.

Onartu behar dugu entzutea, ikastea, ezagutzea dagokigula, Yuderkis Espinosa filosofo feminista dekolonialak proposatzen duen moduan⁷: "Ezinbestekoa da nagusitasuna kolokan jartzea eta ezjakintasuna

6 Carlos Lenkersdorf, *Los hombres verdaderos. Voces y testimonios tojolabales*. Tapia Gonzálezek aipatua (2018).

7 "Feminismos otros y sostenibilidad de la vida" jardunaldia. Hegoa Institutua, 2020ko otsailaren 27a.

“Ez da aski aitortzea ez garela gu izango giltza, ez dugula guk erakutsiko “zein den” jarraitu beharreko bidea; horrez gainera, hasi beharko genuke geure burua aztertzen, aztertzen besteren esperientziak kontatzeko dugun premia hori”

onartzea. Gelditu egin behar da ahotsa daukanaren ahotsa, ahotsa edukitzea esperimentatu ezin izan dutenen ahotsa sor dadin”. Víctor Toledok dioenez, jardunbide eta balio urbano, industrial, eurozentrikoak ezarri ezin izan diren tokietan daude erradikalitate zibilizatorioaren benetako guneak (Toledo, 1996). Kolonizazio material eta sinbolikoaren erasoari eustea lortu duten herri horietan aurki ditzakegu ataka honetatik ateratzeko irtenbideak, gure burua naturatzat ezagutzeko gakoak, kendu ziguten hori elkarrekin berreskuratzeko giltzak. Nolanahi ere, herri horien adierazpen eta pentsamendu moldeei jaramon egin eta horietatik ikasi ordez, amore ematen diogu, dirudienez, benetan beste batzuek azaldu nahi duten hori guk azaltzeko bulkada eutsiezinari. Ildo beretik, Aimé Tapia González mexikar filosofo feministak dio gaur egungo krisi sozial-ingurumenekoan “gero eta nabarmenago esan daitekeela ehunka urtez beren ingurunearekin harmonian bizi izan diren herri horiek gizateriaren etorkizunerako natura-kultura arteko loturaren ikuspegi egokiagoa dutela mendebaldeko modernitate hegemonikoarena baino”. Latinoamerikako pentsalari horrentzat eta beste batzuentzat, hala nola Silvia Rivera Cusicanquirentzat⁸, naturaren eta kulturaren arteko adiskidetze ezinbestekoak honako erronka alboraezin hau dakarkio “iparratlantiar episteme dominatzaileari”: indiar epistemearen aitortza.

Ez da aski aitortzea ez garela gu izango giltza, ez dugula guk erakutsiko “zein den” jarraitu beharreko bidea; horrez gainera, hasi beharko genuke geure burua aztertzen, aztertzen besteren esperientziak kontatzeko dugun premia hori, zeinaren erakusgarritxo bat baino ez baita *iparrazalpena*. Lotsagarria bada ere garai honetara iritsita horrelako baieztapenak egin behar izatea, testu honetan bildutako

ideiek berretsi egiten digute ezinbestekoa dela hala egitea: mugimendu emantzipatzaile bakoitzak du bere buruaren kontakizuna kontatzeko egiletza, tradizio eurozentrikotik eratorritako kategorietan sartu behar izan gabe eta historiaren bilakaera azaltzen saiatzeko erabili dugun “gramatika soziala” aurkaratu, berrizendatu edo leherraraziko duten beste kategoriak batzuk sortzeko ahalmenaz. Mugimendu horiekin lan egitean, autonarratiba horiek azalera ateratzeko behar adina atzeratzera mugatu beharko genuke gure zeregina. *Iparrazalpena*ko gure joera nabarmen horren aurrez aurre, apustua egin usteko elkarriketa horizontaletik haratago ekintza positiboak garatzeko diren eraikuntza espazioak sortzeko, behin betiko ikas dezagun entzuten, kontuan harturik ondorio epistemologiko sakonak izan ditzakeela jardunbide horrek.

Bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duten beste mundu posible batzuk eraikitzeak aukera posible izango bada, ezinbestekoa da botere espazioekiko, akademia ilustratuarekiko, hitz txandekiko, mikrofonoekiko sentitzen dugun erakarpen horretatik urruntzea. Premiazko eginbehartzat gure buruari ezartzea entzute aktiboa eta autokritika, eta alde batera uztea “gauzak azaltzen dituztenak” izaten jarraitzeko irrika.

Bibliografia

- AMORÓS, Celia (2006). *La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias para las luchas de las mujeres*. Ediciones Cátedra, Madril.
- BOURDIEU, Pierre (2010). *La dominación masculina*. Editorial Anagrama, Bartzelona.
- HARAWAY, Donna J. (1991). *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinvención de la naturaleza*. Ediciones Cátedra, Madril.
- HERITIER, Françoise (2007). *Masculino/Femenino II: disolver la jerarquía*. Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- LORDE, Audre (2003). *La hermana, la extranjera*. Editorial Horas y horas, Madril.
- RESTREPO, Eduardo y ROJAS, Axel (2010). *Inflexión decolonial: fuentes, conceptos y cuestionamientos*. Caucazo Unibertsitatea, Popayán, Kolonbia.
- SOLNIT, Rebecca (2016). *Los hombres me explican cosas*. Capitán Swing, Madril.

8 Tapia Gonzálezek aipatua (2018).



Irudia: Kristina Sáez Morkecho.

SPIVAK, Gayatri Chakravorty (1998). "¿Puede hablar el sujeto subalterno?" *Orbis Tertius*, 3 (6), 175-235. In *Memoria Académica*. Hemen eskuragarri <http://www.fuentesmemoria.fahce.unlp.edu.ar/art_revistas/pr.2732/pr.2732.pdf>.

TAPIA GONZÁLEZ, Aimé (2018). *Mujeres indígenas en defensa de la tierra*. Ediciones Cátedra, Madril, 2018.

TOLEDO, Víctor (1996). "Latinoamérica: crisis de civilización y ecología política", *Gaceta Ecológica*, 38. zk., nueva época, Mexiko, DF: INE-Semarnap.

VIDARTE, Paco (2007). *Ética marica. Proclamas libertarias para una militancia LGTBQ*. Editorial EGALES, Madril.

Testuaren
bertsio osoa, hemen:
[www.hegoa.ehu.eus/
file/2177/Texto_completo_
Feminismos_Desazkundera.pdf](http://www.hegoa.ehu.eus/file/2177/Texto_completo_Feminismos_Desazkundera.pdf)



Irudia: Yuderkys Espinosa.

Justiziaren aldeko borroka sozial orok arrazismoaren aurkako kontzientzia eta azterketa hartu behar ditu barne

Yuderkys Espinosa Miñoso. Afrokaribear idazle, ikertzaile eta irakaslea da. Feminismo deskolonialaren aitzindarietako bat izanik, haren ekarpena «arrazoimen feminista eurozentratuari kritika» egitea izan da. [Ikasketa, prestakuntza eta ekintza feministako talde latinoamerikarraren \(GLEFAS\)](#) eta Junta de Prietas taldearen sortzaileetako bat da. Saiakera eta testu akademiko ugari egin ditu, eta feminismo deskolonialaren arloan funtsezkoak diren zenbait bilduma argitaratu ditu. Haren lanak ingelesera, frantsesera, alemanera eta portuguesera itzuli dira.

Hezkuntza kritiko emantzipatzaileko proposamenaren bidez, *beste* ezagutza bat sortzen lagundu nahi dugu, mundua interpretatzeko eta bertan jarduteko moduan nagusitu diren logika androzentristetatik, eurozentristetatik eta kolonialistetatik aske. Zer ekarpen egiten dio ikuspegi deskolonialak lan horri?

Yuderkys. Bada, nik dakidanez, hezkuntza kritiko emantzipatzaileak, ikuspegi deskoloniala heldu zen arte, ez zuen kontuan hartu eurozentrismoari egiten zaion errotiko kritika, eta arreta handiagoa jartzen zuen kapitalismoari, gizarte-egiturei eta klase-harremanei eta politika inperialistei egiten zaizkion kritiketan. Gero, feminismoak sustatutako

jarrerak hezkuntza hori bereganatu zutenean, androzentrismoaren eta patriarkatuaren kritikak ere gehitu ziren. Alabaina, eurozentrismoaren kritika ez zen benetan sartu hezkuntza emantzipatzailean, modernitatea/kolonialtasuna ikertzeko proiektua agertu zen arte. Hain zuzen ere, eurozentrismoaren kontzeptua Enrique Dusselek proposatu zuen, hots, bira deskolonialaren sustatzaileetako batek. Jakina, kritika horrek baditu bere aurrekariak, baina bira deskolonial deritzonarekin hasi zen osatzen gaur egun erabiltzen ditugun elementuekin eta ikuskerarekin.

Bestalde, bira deskolonialaren ekarpenari esker, arraza 1492tik gizarteak egituratzen dituen kategoria bat da hezkuntza kritikoarentzat. Dagoeneko kontua ez da arraza jatorri naturaleko elementutzat hartzea; aitzitik, europar pentsamenduak, sortu zenean, lanerako asmatutako nazioarteko gizarte-sailkapena da eta bi mundu sortzen ditu: gizakiena eta gizakiak ez direnena. Horrekin, Europak gainerako guztitik bereizitako gizatasun-idea sortu zuen, eta gainerakoa gutxiagotasun-egoeran geratu zen: Europatik kanpoko herriak eta natura moduan gutxiagotuta geratzen den guztia. Lehenengoek, hots, Europako herriek, izatez hobeak eta, beraz, munduaren jabe direla aldarrikatzen dute; bigarrenak, hots, Europatik kanpoko herriak, behe-maila batera baztertuta geratzen dira, eta, beraz, Europaren zerbitzura.

Hori izan zen feminismo deskolonialera sartzeko atea. Kontuan hartuta arrazak mundua gizatiarren eta ez gizatiarren artean banatzen dituela dioen azterketa, bai eta mendebaldeko ontologia modernoak munduari buruz sortutako ulerkera zatikatuari egiten zaion kritika ere, sakonago azter dezakegu feminista beltzek "eta ez zuriak" hirurogeita hamarreko hamarkadan teorizazio feministaren eskutik zetorren eta generoa erdigunean zuen azterketari egiten zioten kritika. Horri esker, azterketa kategorialaren arazoa ulertu genuen, agerian geratu baitzen ezinezkoa zela «emakumeen arazoa» bakarrean harturik ulertzea; halaber, Europako langile-klasearen eta, Fanonen hitzetan, lurreko kondenatuen arazoak bereizteko oinarriak finkatu ziren.

Hala, hezkuntza kritiko emantzipatzaileak, eurozentrismoaren aurkako konpromisoa bere gain hartzean, era berean hartu beharko luke arrazakeriaren aurkako konpromisoa, arrazakeria eta eurozentrismoa eskutik baitoaz, eta lehenengoa bigarrenaren zuzeneko ondorioa baita. Hezkuntza kritiko emantzipatzaileak, Beste ezagutzaren ekoizpenari egiten dion

“Hala, hezkuntza kritiko emantzipatzaileak, eurozentrismoaren aurkako konpromisoa bere gain hartzean, era berean hartu beharko luke arrazakeriaren aurkako konpromisoa, arrazakeria eta eurozentrismoa eskutik baitoaz, eta lehenengoa bigarrenaren zuzeneko ondorioa baita”

ekarpenean, nahitaez aztertu behar du arrazakeria, kolonialtasunaren eta eurozentrismoaren osagai moduan, bai eta horiek osatzen duten gizarte-ordena ere. Ildo horretan, bira deskolonialak hezkuntza kritiko emantzipatzaileari egiten dion ekarpen nagusietako bat da arrazakeriaren aurkako kontzientzia eta borroka barne hartzen dituela, sistemaren eta kolonialismoaren aurkako programaren funtsezko zati modura. Justiziaren aldeko borroka sozial guztiek arrazakeriaren aurkako kontzientzia eta azterketa barne hartu behar dituzte.

Halaber, ikuspegi deskolonialak hezkuntza kritiko emantzipatzaileari egin dizkion ekarpenak ulertzeko, funtsezkoa da menderakuntzaren fusioaren edo matrizearen ideia; era berean, menderakuntzaren begirada zatikatuari kritika egiteko beharra dagoela eta mundua eta bertan bizi diren guztiak elkarri lotuta daudela ulertzera itzuli behar dugula barneratu du. Lehenago esan dudana bezala, bereziki, ekarpen hori arrazakeriaren aurkako feminismo deskolonialek dator, zeinak emakumeen egoeraren azterketatik ikuspegi eurozentratua kentzeko eskatu zion hezkuntza kritikoari. Horrek errotik aldatu zuen emakumeen arazoa ulertzeko eta horri aurre egiteko modua. Ildo horretan, hezkuntza kritiko emantzipatzaileak patriarkatuaren eta androzentrismoaren aurkako kontzientzia sortzeko lan egiten duenean, dagoeneko ez da abiatzen gizonen eta emakumeen mundua kontrajartzetik, barnean homogeneoak diren aurkako bi multzo balira bezala. Aitzitik, hasteko, generoaren kolonialtasuna ulertu eta tokiko historiak eraikitzen lagundu behar da; historia horietan, modu negatiboan arrazializaturako taldeetako emakumeak boterea galtzen joan gara, gure gizarteak mendebaldeko ohiturak hartzen joan diren heinean, eta ez alderantziz, pentsatu ohi den bezala.

“Pentsamendu deskolonialak erakusten du eurozentrismoa ezabatu behar dela akademiatik eta gizarte-zientzietatik, ezagutza sortzeko duten moduetatik, bai eta aurrerapenaren eta teknika eta natura gehiago menderatzearen idealari lehentasuna ematen dioten programetatik ere”

Ikuspegi horrek aldaketa nabarmenak sartzen ditu pribilegio gutxiago dituzten emakumeekin harremanak izateko orduan, dagoeneko kontua ez baita Europako herrien ondorengo diren emakume zuriei balio izan dieten teoriak ikastea, baizik eta geure esperientzia historikoa sistematizatzeko prozesuak sustatzea eta gure errealitateak ulertzeko susmoak eta ereduak baliozkotzea, bai eta historikoki menderakuntzei aurre egiteko erabili ditugun prozesuak babestea ere.

Gure proiekturako, unibertsitate publikoa funtsezko tokia da, hezkuntza kritikoaren eta gizarte-aldaketaren arteko lotura aldarrikatzeko. Gaur egun duen orientazio merkantilista zuzentzeko eta ikuspegi emantzipatzaileen bidez kultura-aldaketan laguntzeko gai den ezagutza sustatzeko eskatzen dugu. Pentsamendu deskolonialeko zein elementu garrantzitsuk lagun dezakete ahalegin hori indartzen unibertsitatean?

Yuderkys. Pentsamendu deskolonialak benetan kritikatzeko dituen ezagutza zientifikoa eta soziala eraikitze moduak, hots, unibertsitateetako eta gune kritikoetako mendebaldeko epistemologiak kritikatzeko dituen. Kritikari egindako kritika da, eta erakusten du nola justizia soziala lortzeko teoria bat egiteko konpromisotik ere jarraitutasuna eman zaion modernismoaren proiektuari eta horren askapen-programari. Pentsamendu deskolonialak erakusten du eurozentrismoa ezabatu behar dela akademiatik eta gizarte-zientzietatik, ezagutza sortzeko duten moduetatik, bai eta aurrerapenaren eta teknika eta natura gehiago menderatzearen idealari lehentasuna ematen dioten programetatik ere. Pentsamendu deskolonialak zientziek ekoiztutako jakintzek duten zilegitasun-maila bera ematen diete akademikoak ez diren jakintzei, eta lehen zuten balioa itzultzen die ahozko jakintzei, harreman-ontologiari eta guztion

ona lortzeko proiektuei, zeinak bizitzaren zainketan eta oroimenaren eraikuntzan jartzen duten erdigunea, eta iragana ezagutza-iturri amaiezina dela uste duten, eredu kapitalista predataileak eta heriotzaren kulturak ezarritakoak bestela jardun eta bizitzeko.

Abya Yalako herrientzat beren etorkizuna iraganari begira eraikitzen dela erakusten digu, eta gogorazten digu ordena zuriaren esku-hartzearen eta hedapenaren ondorioz gaur egun garenaz bestelako zerbait izan ginela noizbait. Horrek unibertsitatean ezagutza sortzeko dauden oinarriak astintzen ditu, eta mendebaldeko pentsamendu modernoak, hirietako gizarte-mugimenduek eta unibertsitateek berriro moduan aurkeztu dituzten justizia-idealak kolokan jartzen ditu.

Unibertsitatearen ordean, unibertsitate-aniztasuna proposatzen dugu, hots, jakintzak anitzak direla eta jakintzen arteko elkarriketa sustatu behar dela onartzea. Horrekin batera, ohartu behar gara gure historia partikularretatik abiatuta geopolitikoki kokatutako ezagutza sortzeko beharra dagoela.

Azken 20 urteotan, inoiz baino ezagutza gehiago sortu da, esponontzialki, hala akademian nola akademiatik kanpo; askotariko ahotsek sortu dute ezagutza hori, eta, horien artean, ezagutza izateko gaitasuna eta agentzia historikoa ukatu zaien munduetako geroz eta intelektual eta ikertzaile gehiago daude. Lehen aldiz ikusi dugu nola geopolitikoki kokatutako ekoizpen kritiko batek aurre egin dion ezagutza zientifikoaren unibertsaltasunari. Eta hori bat etorri zen denboran, akademian eta akademiatik kanpo, gure gizarte-mugimenduetan eta herriko intelektualtasunean gertatutako bira deskolonizatzailearekin. Ildo horretan, ziur nago kolonialtasunaren eta eurozentrismoaren kritikak zabaldu bideak nolabait lagundu ziola unibertsitatea zabaldu eta demokratizatzeko une horri, bai eta akademikoak ez diren bestelako jakintza batzuei baliozkotasuna emateko aukerari ere.

Esan behar dut, ekarpen handi hori gorabehera, gure azterketa eta ikuspegiekiko erresistentzia handia dagoela oraindik ere, eta mundu akademiko eta intelektualetik datozen aurkako garrantzitsuak ditugula. Oso eurozentrikoak diren baina legimitate-maila handia duten beste pentsamendu eredu garaikide batzuetan prestatutako intelektual kritiko askori zaila egin zaie eta, oraindik ere, zaila egiten zaie geuk sortutako pentsamendu kritikoaren ekoizpenari

egiten ari garen ekarpenak barneratzea. Horrez gain, liskarrak eta lehia pertsonalak daude, gizarte-kritikaren eremuan nor nagusituko den erabakitzeko. Adibidez, gaur egungo ahots nagusietako batek, hots, Silvia Rivera Cusicanquik, behin eta berriz gaitzesten du bira deskoloniala. Walter Mignolorekiko eztabaidan, bira deskoloniala haren figura problematikoetako bat besterik ez dela dio, eta, horrekin, zilegitasuna kentzen die isildutako mundutik gatozen hainbat intelektualek egin ditugun ahalegin eta ekarpen guztiei.

Feminismoaren historian lehen aldiz, nolabaiteko onarpena eta entzungarritasuna duten emakume, lesbiana, trans, genero ez bitarreko pertsona, jatorri indigenako pertsona, afrikar jatorriko pertsona, indiano eta asiarren makina bat ahots ditugu. Feminismoko beste ahotsok entzute- eta zilegitasun-gune bat dugu, eta gene hori hazten joan da mundu osoan. Duela 20 urte, hori pentsaezina zen. Latinoamerikan feminista arrazializatu talde txiki bat geure teoria propioa zergatik ez genuen galdetzen hasi ginenean; sexismoaz, arrazakeriaz eta munduko herri eta eskualde kondenatuetakoak izatearen historiak markatutako esperientziak ditugun emakumeok geure menderakuntza interpretatzen hasi ginenean; geure idatzizko eta ahozko ekoizpenaren prestakuntza emateko, horri buruz eztabaidatzeko eta berori sustatzeko geure proiektuak sortzen hasi ginenean, beste agertoki bat zegoen, ez zeuden galdera horiek, ezta kezka hori ere, programa feministaren barruan. Feministok geure gain hartu genuen feminismoaren deskolonizazioak proposatzen zigun zeregina, erronka onartu genuen; feministok ireki genituen ateak. Feminismo deskolonialak ahalbidetu zuen, ezagutzen dugun historian beste ezein programa feministak egin ez duen bezala, iparralde globalean ekoizitako ezagutzen hartzaile eta itzultzaile izatera murriztuak izan ginenok ekoizpen propioko eremu bat sortzea.

Nola mamitu daiteke proiektu deskoloniala Akademiaren irakaskuntzako eta ikerkuntzako jardunbidean? Ildo horretako esperientzia eta/edo ideia batzuk jaso nahi genituzke.

Yuderkys. Dagoeneko badaude zenbait esperientzia ildo horretan, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Deskolonizazio-proiektuak aporia bat dauka bere baitan, eta horrekin bizi behar dugu. Batetik, zientziak modernismoan duen tokiari eta zientziaren eurozentrismoari egin diegun kritikaren ondoren, argi dago zeregin luzaezin bat dagoela zientziak sistematikoki baztertzen dituen beste ezagutza mota batzuk baliozkotzeko ahaleginei

“Feminismoko beste ahotsok entzute- eta zilegitasun-gune bat dugu, eta gene hori hazten joan da mundu osoan”

laguntzen, eta, horretarako, egiaren ekoizpenean duen eskusibotasuna kendu behar diogu akademiari. Ezagutzen ekoizpenaren eta balioaren erdigunea unibertsitatetik atera behar da, eta onartu behar dugu Beste ezagutzek metodo zientifiko modernoak jarraitzen duten ezagutzen egia-maila bera dutela.

Era berean, ez dirudi etorkizunean akademia desagertuko denik, planeta osoan finkatu baita, eta gizarte-taldeek (baita beren ezagutza motak ukatuta ikusi zituztenek ere) kuota-politikak eskatzen dituzte, gaurko eta etorkizuneko belaunaldiek horrelako prestakuntzarako sarbidea izan dezaten. Beraz, akademia gelditzeko etorri da, eta harekin bizi behar dugu. Horrexegatik, ez dut uste guztiz baztertu behar dugunik, intelektualen aurkako zenbait jarrera aktibistak proposatzen duten moduan, zeinak ezagutzaren ekoizpen guztiak ukatzen dituzten, ezagutzaren eta esperientziaren arteko banaketa



Irudia: Verena Melgarejo.

“Nire ustez, akademia tirabiran dagoen eremu bat da, eta ez genuke etsi beharko izan ez den zerbait bihurtzeko ahaleginean”

egiten duen metodo zientifiko klasikoarekin nahasten dutelako.

Nire ustez, akademia tirabiran dagoen eremu bat da, eta ez genuke etsi beharko izan ez den zerbait bihurtzeko ahaleginean. Ildo horretan, hainbat proposamen aspalditik egiten ari diren moduan, esku hartzearen aldekoa naiz. Egiaz, eurozentrismoari aurre egiten eta ikerkuntzako beste metodologia batzuk sortzen saiatu diren esperientzietako batzuk, asmo onez izan arren, tolesgabeak izan dira jakintza akademikoaren eta arbasoen herri-jakintzen arteko elkarrizketa sortzen saiatzean; ondorioz, kasurik onenean, horrelako esperientzia gehienetan, azkenean, jakintza horiek esperientzia huts gisa integratu dira, zientzialari edo ikertzaile ziurtatu baten ahots baimendu eta espezializatuak itzuli ondoren, betiere. Iragate horretan, berriz ere, ikertzaileak eskuratzen du aitortpena eta jakintzaren ordezkartza. Beste kasu batzuetan, agian, gehienetan, akademia unibertsitatearen lau hormetatik ateratzen saiatu dira, komunitateetara joateko, topaketa hori lortu eta elkarrizketa hori sortzeko. Emaizak lehen ereduak bezain eztabaidagarriak edo are eztabaidagarriagoak dira.

Arrakastarik gabeko saiakera horiek gorabehera, onartzen dugu esperientzia garrantzitsuak egon direla, gutxienez Latinoamerikan, eta duela zenbait hamarkadatik hona jakintzara hurbiltzeko eta berori sortzeko beste era batzuk finkatu dituztela. Fals Bordak proposatutako partaidetzako ikerketak ekintza daukat buruan; Kolonbiako Karibeko pentsalari eta ikertzaile handi horrek, bere partaidetzako metodoarekin, goitik behera aldatu zuen komunitateetara hurbiltzeko modua, haiekin eta haien zatik gizarte-konpromiso handiarekin lan egiteko modua.

Halaber, Linda Tuhiwai Smithen proposamena datorrit gogora; jatorri maoriko metodologia-sortzaile eta hezitzaile handi horrek ikerkuntza-proposamen indigena bat sistematizatu zuen eta ikerkuntzako metodologia deskolonizatzaileak garatzeko funtsezko alderdiak proposatu zituen.

Nire ustez, ikerkuntza deskolonizatzaileak, gutxienez, ikerkuntzako gai nagusiei buruz nork eta nola erabakitzen duen aldatu beharko luke, halako moldez non beti komunitatearen interesen alde egingo duen. Horri buruz hitz egiten du Tuhiwai Smithen: komunitateek beraiek erabaki beharko lukete zer gai ikertuko diren, ikerkuntzaren erdigunean gizarte-menderakuntzazatik kalteberatasun-egoeran dauden komunitateak daudenean.

Era berean, betidanik badirudi ikerkuntzaren xedea talde jakin batzuk ikertzea dela, hain zuzen, subjektu zuri burgesaren Beste diren horiek, hots, indigenak, beltzak, ijitoak, migratzaileak, langile-klaseko taldeak, pobretuak... Horregatik, ahal den neurrian, jardunbide hori alde batera uzteko ahaleginean aurrera egin beharko luke. Ochy Curielek menderakuntzaren antropologia deritzona proposatzen du, zeinak nagusiki elite intelektual burgesetatik datozen ikertzaile eta ikasle zuriei beren taldeak ikertzeko proposamena egiten dien. Taldeok ekoizten badute eta haiek lortzen badute menderakuntzaren eta gizarte-egituraketa hierarkikoaren onura, haiei buruzko ikerketek informazio asko emango digute gizarte-boterea hamarkadaz hamarkada mantentzeko erabili dituzten mekanismoei buruz, eta nolabait argituko digute nola mantentzen duten gaur egun, nola joan diren aldatzen haien bizitza-ereduetan, itxaropenetan, helburuetan, sinesmenetan, eta abar, eta nola sentitzen duten sortu edo oinordetzan jaso duten posizio pribilegiatu hori.

Halaber, interesgarria iruditzen zait ikerkuntzaren xedea, bai eta emaitzak jakinarazteko erabilitako metodoa edo bidea ere. Sarritan esan da ikertzaileek beren ikerkuntzen emaitzak txosten akademiko batean edo beren babesleentzat egiten dituzten amaierako txostenetan ez geratzeko erantzukizuna dutela. Nire ustez, ikerkuntza deskolonialak bi motatako emaitzak sortu behar ditu, bi hizkuntza oso

“Nire ustez, ikerkuntza deskolonizatzaileak, gutxienez, ikerkuntzako gai nagusiei buruz nork eta nola erabakitzen duen aldatu beharko luke, halako moldez non beti komunitatearen interesen alde egingo duen”

desberdinetan: emaitza baten xedea da akademiaren armazoi kontzeptual eta epistemologikoan esku hartzea, ditugun arazoei buruzko interpretazio berriak emanez, beti pentsamendua eta agentzia historikoa ukatu zaienen ahotsei eta pentsamenduari balioa emanez. Horretarako, feminismo deskolonialak, adibidez, teoria feminista beste ikuspegi batera eraman behar du, zeinetan pribilegio gutxiago dituzten emakumeen ahotsak eta interesak entzungo diren, aintzat hartuko diren haien interpretazioak eta botereari aurre egiteko gaitasuna, eta haien ikuspegiak onartuko diren, lekukotzaren balioa eman beharrean, egiletzaren eta munduari buruzko pentsamenduaren balioa emanez.

Uste dut akademiarekiko liskar horiek, sarritan, ez zaizkiela interesatzen komunitateei, beren bizi-raupena mehatxatzen duten matrize koloniala eta heriotzaren kultura geldiarazteko moduak bilatzen ari baitira. Alabaina, komunitate arrazializatu eta pobretu horietatik etorririk gune horietara heldu garenok rol bat izan behar dugu zeregin horretan.

Bestalde, deskolonizazio ahaleginak egin nahi dituzten ikertzaile kritikoek, botere-matrizearen eraso jasotzen duten taldeekin lan egin nahi badute, lortutako emaitzen onuradun nagusiak komunitate horiek izan daitezen konprometitu beharko dira. Dagoeneko kontua ez da komunitateko ordezkari bat edo bi emaitzak jakinarazteko jardueretara gonbidatzea –zeinak teoria sozialaren berezko lengoaia espezializatuan idatzita dauden–, gune akademiko edo komunitarioetan; aitzitik, bestelako azterketa bat egin behar da lortutako informazioarekin, hain zuzen ere, protagonisten interesei zehazkiago erantzungo dien azterketa bat. Horretarako, gainera, emaitzak jakinarazteko modu sortzaileagoak eta talde interesdunaren hizkuntzei erantzuten dietenak ekoizteko ahalegina egin behar da. Kontua ez da itzulpen sinple eta problematiko bat egitea, taldearen interesei, premiei eta logikei erantzutea baizik. Deskolonizazioarekin konprometitutako gizarte-ikerikuntza egiteko, komunitate zapalduenen edo mundu globalizatuaren bazterretan bizi direnen eremu ontologikoan eta interesetan sartzeko ahalegina egin behar da; hain zuzen ere, komunitate horiek dira munduko sistema moderno kolonial arrazista eta genero-diskriminaztailearen aurrerapenak gehien eraso dituenak. Horrexegatik behar dira talde kaltetuenetatik datozen ikertzaileak dituzten ikerketa-taldeak.

Horren ildotik, ikasi ahal izan dut munduko komunitate arrazializatu eta marjinatuetan barne-memoria

gordetzeko urgentzia dutela, arbasoen ezagutzen artxiboa belaunaldi berrietara hel dadin; izan ere, belaunaldi berriok zapalduak izan dira, hizkuntza hegemoniko kolonialen inposizioagatik beren hizkuntza galdu dutelako eta, gero, komunikazio teknologikoaren etorrerak beste ezagutza mota guztiak itzalpean utzi dituelako. Norberaren hizkuntza eta mundua irudikatzeko moduak galtzeak oroimena eta garenaren irudikapena kolpatzen ditu, geure burua ikusteko eta izendatzeko moduak erasotzen ditu, ezabatzeko eta isiltzeko moduak dira. Horregatik, belaunaldi zaharrek nolabaiteko interesa dute beren seme-alabei eta bilobei bizi izan duten mundua nolakoa den erakusteko, eta azaltzeko nola bizi izan zuten gizaki zuriaren ordena kolonialaren etorrera, nola egin dioten horri aurre, azken batean, guztien ona lortzeko pilatu dituzten jakintzak irakasteko.

Ziur nago pribilegio gutxiago dituzten herriei konprometitutako gizarte-ikerikuntzak bere gain hartu behar duela memoria eraikitze lan horren erantzukizuna, historiak eta jakintza akademikoak baztertutako subjektuen jakintzen eta ezagutzen duintasuna eta baliozkotasuna berreskuratzearen alde eginez, esperientziaren genealogia moduan izendatu dudanari laguntzeko; horri esker, batetik, akademiara ekarriko lirake gure izate sinboliko eta materiala arriskuan jartzen duten indarren interpretazio subalternoa, hots, gu desagertzea nahi duen hori geldiarazten dugun bitartean mundua berregiteko eta egiteko ditugun moduak. Bestalde, lan genealogiko hori lagungarria izan beharko litzateke memoria komunitarioa –bizi dugun oraina eta gure historiaren motorra ulertzeko aukera emango digun memoria kritikoa– eraikitze lan honetan.

Irakaskuntzako metodologia askatzaileei dagokienez, hirurogeita hamarreko hamarkadatik Pablo Freireren lan garrantzitsua daukagu. Hasiera batean, metodo hori helduen hezkuntzan eta hezkuntza

“ Deskolonizazio ahaleginak egin nahi dituzten ikertzaile kritikoek, botere-matrizearen eraso jasotzen duten taldeekin lan egin nahi badute, lortutako emaitzen onuradun nagusiak komunitate horiek izan daitezen konprometitu beharko dira ”

ez-formalean lan egiteko pentsatuta zegoen, baina askorentzat erreferente ukaezina izaten jarraitzen du, eta nolabaiteko gida izan daiteke ikasgelak bizitza politizatze eta kontzientzia kritikoa sortzeko laborategi bihurtzeko lanean. Askapenerako hezkuntza berrikusten eta eguneratzen joan da urtez urte, eta herri-hezkuntza formal eta askatzaileko esperientzia askoren oinarria da gaur egun.

Hori egiten lehenengoetako batzuk feministak izan ziren, zeinak Freireren metodoa erabili zuten emakume nekazariekin eta herri-sektoreetako emakumeekin lan egiteko, eta haien ekarpenetako batzuk ikasgelara eta ezagutzaren eraikuntzara eraman zituzten. Guk, GLEFAS taldean, horri buruzko hausnarketak egin ditugu, eta, herri-mailako hezitzaile eta akademiko moduan izan dugun esperientziatik abiatuta, horrelako partaidetzako herri-hezkuntza feministetan egon diren arazoak behatzen saiatu gara, konpontzen ahalegintzeko. Ikusi genuen herri-mailako eta partaidetzako metodologia askatzaile horrek, hala ikuspegi feministetatik nola ezkerreko ikuspegietatik, nahiz eta asmo ona eta konpromiso handia izan, ez zuela kontuan hartu berori gidatzen zuten proiektu politikoaren eurozentrismoa. Hori dela eta, azkenean, askapenerako hezkuntza-eredu horiek herrira heltzeko eta ikasgelako lana hobetzeko modu eraginkorrago bat aurkitu zuten, baina, aldi berean, jarraitutasuna eman diote askapeneko programa modernoaren hedapenari, eta baliozkotasuna, mendebaldeak sortutako interpretazio-esparruari. Feminismoaren kasuan, partaidetzako eta askapeneko metodologia horiei esker, generoaren ideia emakumeen menderakuntza azaltzeko funtsezko kategoria modura zabaldu zen, baina, aldi berean, emakume askatuaren irudi jakin bat ezartzen lagundu du: kontsumo-ereduan integratuta dagoen hiriko erdi-mailako emakume zuri europar, ikasi eta profesionalaren estandarra eta bizi-eredua berdintzen duena. Saiakera horietan ditugun arazoen adibide ona da hori.

Feminismoaren diskurtso eta jardunbideak barneratzea hezkuntzako ekintza emantzipatzailearen kezketako bat izan da –eta izaten jarraitzen du–. Zer irakurketa kritiko egiten diozu gure historian erreferentzia nagusi bihurtu den mendebaldeko feminismo horri? Nola zabaldu dezakegu gure ikuspegia feminismo deskolonialak dakarzkigun beste aukerak irudikatze?

Yuderkys. Uste dut aurreko erantzunetan eman ditudala behar beste gako, feminismo deskolonialak

mendebaldeko feminismoari buruz egiten duen irakurketa kritikoari dagokionez. Beste gune eta argitalpen batzuetan ere asko hitz egin dut gai horri buruz. Ez errepikatzeko eta jendea ez nazkatzeko, gauza bakarra berretsiko dut: mendebaldeko programa modernoarekiko duen konpromisoa kritikatzeko, nagusiki; izan ere, esan dugun moduan, programa hori giza taldeen mundu-mailako arrazagatiko sailkapen batean eta gizakien eta gizakiak ez direnen arteko hierarkien eraikuntzan oinarritzen da. Feminista deskolonialek teoria feminista zabalduenaren eurozentrismo sakona (eta, beraz, arrazakeria sakona) salatu dugu; hain zuzen ere, teoria feminista hori da egiaren balioa duena, teoria sortu dutenen adierazpen-pribilegioei esker, eta sortzaile horiek hiriko, klase ertaineko eta europar jatorriko (edo munduan horien ondorengo izendatzen direnak) emakume zuri eta ikasiak dira.

Garrantzitsua da nabarmentzea kritika hori ez dago-kiola soilik teoriaren arloari (ezinezkoa da-eta). Behin eta berriz esan dudana moduan, kritika guztiak, ezinbestean, pentsamenduaren eta ekintzaren arloei dagozkie. Izan ere, ekintza interpretazio teorikoz, hots, munduaren interpretazioz beteta dago. Teorizazio feminista eurozentratu, kolonialista eta arra-



Irudia: Ange Valderrama Cayuman.

zista horrek arrastoa utzi du feminismoaren programan eta agendan. Izan ere, agenda horrek horrelako teorizazioen ekoizpena eta hedapena sustatzen du. Teoria guztiek munduari buruzko arauak ematen dituzte. Nola sentitu eta bizi behar dugun esaten digute eta, batez ere, eta niretzat garrantzitsuena dena, munduaz zer espero behar dugun esaten digute, gure amets eta itxaropenak zehazten dituzte. Nolako gizartea lortu behar dugun esaten digute. Nolakoak bihurtu nahi dugun.

Nire ustez, hau da genero-arloko interpretazio feminista horren arazorik handiena: modernitatearen ametsa berregin eta zabaltzen du; modu jakin batekoak izateko nahia izan behar dugula irakasten digu modernitateak baztertu dituen herrietako emakumeei. Feminismoa modernismoaren programa bat da, emakumeei zuzendutakoa; mendebaldar bihurtzeko eta kolonialismoa zabaltzeko prozesuetako bat izan da. Jakina, hori ezkutuan dago, ez da feminismoaren ageriko aurpegia. Baina munduko emakume arrazializatuak aspalditik ari dira hori salatzen. Ildo horretan, ikuspegiak nola zabaldu galdetu duzunez, hau da erantzuna: egiaren jabe izatearen nagusikeria alde batera utzi eta entzuteko gai izan behar da. Entzuteko, gure sinesmenak parentesi artean jartzeko gaitasuna izan behar da, interpela gaitzaten utzi behar dugu. Maria Lugonesek esango lukeen moduan, iragazgaiztasuna alde batera utzi behar da, harremanetan gaudela sentitu eta gure esperientziatik kanpo dagoenarekin miresteari ateak zabaldu behar dizkio-gu. Sinesgarritasuna eman behar zaio izatearen eta egiaren estatututik kanporatuta geratu direnen hiztari eta subjektibotasunari.

Feminismo deskoloniala nolabaiteko zizakadura dela esaten duzu. Mundua iritsi berria bazina bezala eta txundituta ezagutzeko modua dela aldarrikatzen duzu. Nola eraikitzen da munduari ikuspegi horretatik begiratzen dion epistemologia bat? Beste epistemologia batzuk baztertu behar dira horretarako? Eta zer neurritan?

Yuderkys. Uste dut, azken finean, beti gaudela zezelka. Harroputz baten ametsa besterik ez da gizakiek modernotasunarekin lortuko zuten heldutasun kantiar famatu hori, bai eta Europa hori lortzeko aukeratua izan zelako ideia ere; harroputz horrek ez dauka baduela esan duen hori, eta ez daki (edo ez du onartzen) ez dakiela ezer, edo berea ere ia ez dakiela. Heldutasun hori ez da inoiz nahi dugun moduan iristen, adin jakin batera heltzen zarenean eta esperientzia jakin bat duzunean, ezer ez dakizula

“Nire ustez, hau da genero-arloko interpretazio feminista horren arazorik handiena: modernitatearen ametsa berregin eta zabaltzen du; modu jakin batekoak izateko nahia izan behar dugula irakasten digu modernitateak baztertu dituen herrietako emakumeei”

konturatzen zara, beti ikaslea zarela, eta zure egia erlatiboa dela.

Zezelkatzea funtsezkoa da niretzat, horrela pentsatzen dut. Pentsatzeko prozesua inoiz amaitzen ez den continuuma da. Ideia bat elikatzen da denboran zehar, bizitako esperientzia pertsonal eta kolektiboaren bidez, bestearen esperientzia entzunez. Niretzat, feminismo deskoloniala zizakadura da, mugimenduan dagoen pentsamendua, hemen eta orain kokatutako egia, zeina pixkanaka aldatzen doan. Bide hori hartzean, badakigu nola hasi garen, baina ez non amaituko dugun. Ni ez naiz beti feminista deskoloniala izan, ez dut beti arrazakeriaren aurkako politika egin; hasieran egin nituen bideetatik pixkanaka aldentzen joan nintzen. Ez dakit beti feminista deskoloniala izango naizen, agian bihar proiektu honetan dudak fedea ere galduko dut, agian proiektu honen mugak edo hormak jasanezin egingo zaizkit noizbait.

Horregatik, feminismo deskoloniala apustu irekia dela uste dut, emakume modura sailkatutako pertsona baten bizi-esperientziaren zabaltasunetik pentsatzen bada, kontuan hartuta horrek zer esan nahi duen geopolitikoki arrazakeriak, kolonialtasunak eta heteropatriarkatuak markatu duen testuinguru eta gorputz baten barruan. Apustu horri esker pentsamenduaren beste espetze bat bihurtzea saihesten duela pentsatzea gustatzen zait, leiho ireki bat dela eta aukera ematen duela arnasa hartzeko, freskatzeko, huts egiteko eta mendekotasunari eta eusteko dugun gaitasun amaiezinari buruz daukagun ulerkera hobetzeko ahaleginetan jarraitzeko. Zizakadura deitzen diot, ez dudalako behin betiko egietan sinesten. Apustu egin nahi dut gai garela hizkuntza berriak esperimintatzeko, eta justizia sozialaren aldeko borroka-prozesuetara geure harri-koskorra ekartzeko modu sortzaileak aurkitzeko, inoiz freskotasuna eta barrea galdu gabe. Zezelka

“ Ez bagaituzte entzun nahi, beste alde batera begiratzen badute, agian oihu egingo dugu, oztopoa izango gara haien bidean. Ez diegu onartuko gu alde batera utzi eta, aldi berean, hitz gozo eta inklusiboak erabiltzea, beren benetako interesak ezkutatzeko ”

egitea, hizkuntza ezagutzen ez duenak bezala, asmatzen duenak bezala, ez dakienak bezala (egiaz, ez baitakigu), mundua behin eta berriz asmatzen duenak bezala.

Adierazi duzu mendebaldeko feminismoak ematen zizkizun tresnek hainbat urtez ez zizutela ematen zure esperientzia izendatzeko aukera, eta horregatik heldu zarela feminismo deskolonialera; hala, zera diozu: «feminismo deskoloniala gorputza da, hitz egiten». Nola erakar ditzake ikuspegi horrek emakume arrazializatuen errealitateak bizi ez dituzten subjektuak?

Yuderkys. Duten erantzukizuna gogoraraziz. Gogorra dezagun nire oinazea eta nire herriarena, baita munduko kondenatuena ere, haien neurrigabeke-riaren emaitza dela. Europa eta Europaren ondorengoak zorretan daudela erakutsiz, eta, hori nahikoa ez balitz, deiadar etikoa ez bada nahikoa, jakin behar dute, azken finean, ez gaituztela hain erraz erditik kenduko. Haien amesgaiztoa izango gara. Eta, egiaz, halaxe gara, dagoeneko. Ez bagaituzte entzun nahi, beste alde batera begiratzen badute, agian oihu egingo dugu, oztopoa izango gara haien bidean. Ez diegu onartuko gu alde batera utzi eta, aldi berean, hitz gozo eta inklusiboak erabiltzea, beren benetako interesak ezkutatzeko. Arrazake-riaren aurka ez dagoen feminismo oro arrazista da, eta guk ondo dakigu zertaz ari garen antirrazismoaz eta deskolonialtasunaz ari garenean; beraz, alferrik ari dira beren diskurtso politikoki zuzene-kin gu engainatu nahian.

Bestalde, une honetan argi dago saldu diguten askapeneko proposamena geure munduarekin amaituko duen proposamen baten barruan dagoela, eta, are gehiago, planeta osoaren jarraitutasunerako aukerarekin amaitzen du. Beraz, hobe dute esaten dugunari entzutea, bizitzaren jarraitutasunerako

gakoak ez baitatoz beren burua gizateriaren aurrerapen-prozesuaren gailurtzat aldarrikatu duten talde horietatik. Harmonian bizi den eta emakumeak eta gainerako guztia hobeto egongo diren mundu baterako sekretua ez dago hor; aitzitik, hein handi batean, haien programa liberazionistak baztertzan dituen emakumeek gordetzen dute sekretu hori.

Hezkuntza emantzipatzailea lortzeko, beharrezkoa da behetik hasita herri-mailako kontrahegemonia bat eraiki nahi duten gizarte-taldeekin batera antolatzea. Uste duzu posible dela nolabaiteko elkarrizketa sortzea feminismo deskolonialaren eta beste ikuspegi feminista batzuen artean? Nondik hasi beharko litzateke? Zer baldintza izango dira estrategikoak elkar onartzeko eta elkarrengandik ikasteko prozesu hori abiarazteko?

Yuderkys. Galdera hau egin didaten guztietan esan dudan moduan, nire ustez, elkarrizketarako aukera ez dago gure baitan, gure kritika eta iritziekin interpelatzan ditugun haietan baizik. Ezin da gure esku geratu zubiak eraikitzeiko aukera, desparekotasuna ez baitugu guk eraiki, hor zegoen, izendatzen ikasi aurretik ere. Banantzen gaituzten interesak hor egon dira beti, gutako batzuek geure buruak deskolonial edo antirrazistatzat hartu aurretik. Ezkutuan zeuden, baina horrek ez du esan nahi ez zeudenik hor. Ez gara gu izan hierarkiak sortu ditugunak eta haiengandik onurak atera ditugunak; beraz, ez dut uste hurbiltzeko ahalegina guk egin behar dugunik. Eta elkarrengana hurbiltzeko eta zubiak eraikitzeiko ahalegina ezin da izan diskurtso honen oinarria, beti horrekin kendu nahi baitiote zilegitasuna gure amorruari, «azken batean, guztiak emakumeak gara eta etsai berbera» dugula esanez. Horrek esan nahi du oraindik ez dutela ulertzen zertaz ari garen, ez digutela entzuten, ez dietela baliorik ematen gure ondoeza sortzen duten askotariko arrazoiei.

Elkarrizketarako aukera helduko da feminismoa konturatzen denean hitz egiteko toki pribilegiatu batean dagoela, eta toki pribilegiatu horri aurre egin eta desegiteko borondatea azaltzen duenean. Feminismoak isiltzeko, bere burua zalantzan jartzeko eta umiltasunez eta ikasteko gogoz topatzeko borondatea duenean helduko da hitz egiteko aukera. «Ekintzako maisu» modura edo taldeko «aurreratu» modura duten tokia uzten dutenean. Prest egon behar dute zabaldu duten politikaren joko-arauak aldatzeko. Baina, batez ere, prest egon behar dute klase edo talde moduan desagertzeko. Diren bezalako bihurtzen dituen eta dituzten pribilegioak ematen

dizkien munduaren aurka borrokatzeko prest egon behar dute. Haien gizarte-ereduak eta gozatzen duten guztiak desagertu egin behar du, planetako bizitza desagertzea saihesteko.





Nortzuk gara

- STAND

Hemen aurkituko gaituzue

- www.standugr.com
www.facebook.com/StandUgr

STAND (South Training Action Network of Decoloniality) De-kolonialitateak eragiten

Hastapen modura

STAND <www.standugr.com> diziplinarreko ardatza duen ikerketa talde gisa sortu zen, eta honako toki hauetako ikertzaileak biltzen ditu: Granadako Unibertsitatea eta Valentziako Unibertsitatea (Espainiako testuinguruan), FUDAN Unibertsitatea (Txina), UNCUIYO (Argentina), Quilmesko Unibertsitate Nazionala (Argentina), UNICAUCA (Kolonbia), Hego Kalifornia Behereko Unibertsitate Nazional Autonomoa (UABCS) eta La Reunión Unibertsitatea (Frantzia).

Ikerketa-Ekintza Bideak

Gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunerako bidea

Gure kezketako bat lurraldeko jakiteak ekoizteko moduei begiratzeari dagokio, jakite horiek gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunerako praxiaren diseinu komunitarioarako tresna gisa ulertuta. Bide horretan, tokiko nekazaritzako elikagaien sistemen diseinua agertu da, eta Granada hirian Ecomercados ekimenarekin abian jarri da, jada finkatuta dagoen sare batekin <<https://ecomercadogranada.org>>. Nekazaritzako elikagaien sistemak berreskuratzeko kezka horren eraginez, Europako PM7 Proiektu bat <<https://memolaproject.eu/es>> zuzendu genuen, 10 mende baino gehiagoko tradizioa duten goimendietako ureztatze-sistema tradizionalen egin-kizun zentrala berrezartzeko. Labore ureztatu tradizional horiek funtsezkoak dira, gizarte- eta ingurumen-efizientzia handia dutelako; alde bate-tik, babestutako eremu naturalak mantentzeko,

eta, bestetik, etorkizuneko aukera gisa elikadura-subiranotasun horretara bideratutako nekazaritza-ekosistementzako, subiranotasun hori uraren ku-deaketa komunitarioak babesten baitu. Nazioarteko esparruan, ikerketa dekolonialaren aldeko apustuak CONACYT proiektuan 15 urtetik gora lan egitera bultzatu gintuen, Kalifornia hegoaldeko Oasi sistemetan (Hego Kalifornia Beherea, Mexiko) lurraldearen memoria eraikitzeke eremuan. Begirada kritiko hori klima erdibasamortutarra duten kokaleku horietako biztanleen ahozketasunak ere eraiki du: beren lurralde-arkitekturari buruzko ahozketasunak, zehazki. Horri esker, jatorrizko herri horien memoria biokulturala berreskuratu ahal izan dugu, eta etorkizunerako prozesuan laguntzeko aukera eduki dugu <www.hagoc.mx>. 2020. urtearen hasieran, online prestakuntza-prozesu bat abiarazi dugu, "Agroekologia kolapsoaren aurrean" izenburupean <<https://standugr.com/2020/05/06/curso-la-agroecologia-frente-al-colapso-estrategias-de-transicion-y-sistemas-alimentarios-locales>>, eta 1.500 parte-hartzailetik gora izan dugu, batez ere Latinoamerikan eta Europan.

Beste hegoalde global batzuk... bestelako berrizateak. Palestina

STANDeko kideok arreta berezia eskaini diegu hegoalde globaleko mendeko eragileen borrokei. Besteak beste, Mediterraneoaren inguruan eta, bereziki, Palestina-Israelen gertatzen diren kolonizazio, erresistentzia eta berrizate dinamiketan zentratu gara. Arlo horretan, gure lana «Ikerketa-Ekintzatik» abiatutako

analisi dekoloniala egiten saiatzen da, Palestinaren edo Palestina-Israelen dekolonizazio epidemikoa eta deskolonizazio fisikoa lortzen laguntzeko, eta bat egiten du herri palestinarraren eskubideen aldeko Boikota, Desinbertsioak eta Zehapenak izeneko kanpainak (BDS, ingelesez) ezartzen duen nazioarteko zuzenbidearekin. Analisi dekolonialaren proposamen honek aniztasun epistemikotik zein behetik eta horizontaltasunetik abiatuta lan egiteko saiakera egiten du, kontuan izanik Palestina barruko eta kanpoko bazterketen analisi intersektionalaren eta ikusgaitasunaren garrantzia. Horrela, Palestina-Israelen historia hurbilari buruz egin ditugun ikerketek eskualdeko asentamendu-kolonialismoaren azterketan sakondu dute, historiografia tradizionalak behar bezala baloratu ez zituen eragileak sartu dituzte, eta ikuspuntu berriak eman dituzte eskualdeko erresistentzia-prozesuen inguruan. Hala, borroka armatuak aldaketa politiko eta sozialeko dinamiketan duen zentraltasuna zalantzan jarri dute.

Ingurumen gatazkak. Begirada Dekolonialak

STANDeko kideok gizarte- eta ingurumen-gatazken azterketari begirada dekoloniala emateko ere egiten dugu lan, diziplinarteko ikuspuntuetatik abiatuta, eta ekologia politikoa, bake-azterketak eta bestelakoak bateratuz. Azkenaldian egin ditugun lan batzuetan, zehazki, ingurumen-gatazkan murgildutako testuinguruetan ezagutza teknikoa eta zientifikoa ekoizteari buruzko gogoetak bildu ditugu. Izan ere, testuinguru horietan, eragina jasaten duten tokiko komunitateek oso aukera mugatua dute erabakiak hartzeko eta erasandako ingurumen-errealitatearen definizioetan benetako eragina izateko. Egoera hori ikusita, ezagutza ofizialaren eta hegemonikoaren ekoizpenari aurre egiteko hainbat bide ezagutarazten saiatzen gara, besteak beste, ingurumen-monitorizazio komunitarioak eta kontra-kartografiak modu parte-hartzailean baliatuta.

Errealitate ez-eurozentrikoak geopolitika global berri batean

Ikerketa-taldearen Asia-Pazifikoko alderdian, proposamen hori eurozentrismoa ideia nagusitzat duen proiektu modernoaren zentraltasun hegemonikoa eztabaidatzeko sortu da. Asia-Pazifikoari buruzko ikerketen kasu zehatzari ezarri zaio, eta justizia kognitiboaren eta sozialaren aldeko apustua egin da.



STANDek utzitako irudia (talde horrek antolatutako Bideokonferentzia-ziklo bateko programatik ateratakoa).

Ikerketa horien xedea hurrengogaiak aztertzea da: bere sorreraz geroztik (1949) Txinako Herri Errepublikako estatu-narratibak, eta Xinjiangeko Uigur Eskualde Autonomoko (XUAR) herritarren nortasunaren derrigorrezko asimilazioa/erreprimitzea. Fenomeno hori bortitza eta subalternizatzailea da, eta eskualdeko ia hamar milioi biztanleen (bereziki uigur nazionalitatea dutenen) irudi kaskarragoa sortzeko joera du (kultura-, ekonomia- eta teknologia-mailan). Azpimarratu egiten ditu haien izaera arriskutsua (komunitate erlijioso musulmana delako), primitiboa (ingurumena eta baliabideak erabiltzeko dituen modu tradizionalengatik, eskualdeak baliabide ugari baititu) eta bortitza (herritarren zati baten asmo independentistengatik). Txinako Herri Errepublikaren gobernuaren errepresio instituzionalizatuaren arrazoi politiko eta geostrategikoen analisiarekin batera, beharrezkoa da nabarmentzea Beijing-etik abiatutako mundu-mailako proiektu berri baten izaera modernizatzailea (Zetaren Ibilbide Berriak/ Belt and Road Initiative - BRI), bai eta horrek nola eragiten duen tartean dagoen biztanleriaren bizitzan, nortasun biziraupenaren, gentrifikazioaren eta lurraldearen kudeaketaren arloetan.

STAND


ENTRELAZANDO

Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

• Entrelazando

 • www.entrelazando.com

Entrelazando, bizi- eta erresistentzia-espazioak

"Sorkuntza bizitzaren mugimendua da"; hala zioen Alfredo Molano idazleak. Horregatik, "ezagutzera bideratutako ahalegin orok sortzea izan behar du xede, ez deskubritzea. Sortzea, azken batean, ekintza etikoa da". Eta horixe egin zuen: bizitza idatzi. Eta guri, kontatzeko aukerak ematen duen harridura baliatuta, eta objektiboak ez izateko desiratutako ezintasunaren aurrean, gure inguruan gertatzen dena kontatzeko premia bera sortu zitzaigun. Sortzearena. Ibiltzeari ekin genion, beraz.

2011n, Entrelazandok bere ibilbidea hasi zuen Volkswagen Kombi 84 etxe gurgildun batera igota. Bidaia urtebete iraun zuen, Argentina eta Uruguai artean, eta postalaren bestaldeko eguneroko bizitza ezagutzeko bide eman zuen. Gurgil gaineko bidaia amaitu ondoren, Entrelazandoren etapa berri bat hasi zen; betiere, kartografietan aurrera eginez. Horrela, proiektua Txile, Kolonbia, Mexiko eta Kubara iritsi zen, besteak beste, eta gaur egun Kolonbia eta Espainia artean ezarri da, modu iraunkorrago baina ez finkoagoan.

Eta, bien bitartean, ibilian-ibilian, Entrelazando elkargune bihurtuz joan zen, errealitatean hainbat



Irudia: Entrelazando.

arte-adierazpenetatik abiatuta esku hartzeko, sortzeko eta komunikatzeko elkargunea. Gure gorputzek, begiradek eta ahotsek ahalbidetzen diguten komunikazio politikoaren bidez laguntzeko asmoz, eta ekintza kolektibo eraldatzailerako edukiak emateko asmoz.

Gogoeta egiteko eta begirada kritikoak eskaintzeko espazio bat da, geure burua azaltzeko, harremanak izateko eta luzaroan irauteko beste *modu batzuk* ahalbidetuko dizkiguten narratibak sortzeko moduari buruzkoa. Ahal den lengoaia guztietatik bateratu beharreko apustua da, esploratzeko eta erakusteko ezin konta ahala aukeratarako bideak irekitzen baitizkigute lengoaia horiek. Eta, ibilera horretan, gure jakeetetatik partekatzeko galderez bete gara, errealitatea den bezalakoa erakutsi eta kontatzeko: konplexua, bere muga, zalantza eta kontraesanekin. Erantzun guztiak lortzeko inolako asmorik gabe, eta ahots eta begirada bakarra izateko asmorik gabe.

Azkenaldian, kemen handiko hainbat prozesu lantzen ari gara, ikus-entzunezko narratiba, argazkigintza eta idazketa arloetan. Prozesu horiek guztiak indarkeriak lurraldeetan dituen ondorio eta eraginarekin lotuta daude, eta gertakariari bainoago, gertakariaren nondik-norakoei begiratzen diete.

Hala, duela bost urtetik, Kolonbiako Cauca departamenduko Nasa herriaren erresistentzia prozesuan laguntzen ari gara. Herri indigena gisa irauteko mehatxupear daude etengabe, hainbat arrazoi tarteko: haien lider sozial eta agintarien erailketak, Estatuarekin sinatutako akordioak ez betetzea, beren lurraldeetan legezko eta legez kanpoko talde armatuak egotea, narkotrafikoa, megaproiektu industrialak, agroindustria eta meatzaritza...



Irudia: Entrelazando.

Ibilaldi honexek eraman gintuen, halaber, afro herriari Chocó departamenduan laguntzera. Bertan jazo zen duela 18 urte Bojayáko sarraskia, 2002ko maiatzaren 2an. Paramilitarren eta FARC-EPren arteko hilketa hura Kolonbiako gatazka armatuaren historiako sarraskirik mediatizatuenetako bat izan zen. Gaur egun, gertakari hori eztabaidagai bihurtu da, oraindik irekita dagoen gatazkari amaiera emateak komunitateentzat dituen esanahiak direla-eta.

Bi prozesu ari dira orain garatzen, beste batzuekin batera, eta, hortaz, aurrera jarraitzen dugu; izan ere, urteak igaro arren, oraindik zaila da gertatzen dena berreraikitzea. "Memoriaren egia egiaren memoriaren aurka borrokatzen da", zioen Juan Gelman poetak. Narrazioa denbora behar duen gerturatze ariketa bat baita.

Eta denboraren igarotze honetan, istorio horiek non eta nola irauli jakiteko bilaketa batean sartu ginen. Eta orduantxe erabaki genuen argitalpen-proiektu bat eraikitzearen alde egitea. Argitalpen prozesuan dagoen lehen liburua, Nosotras, territorio que habla izenekoa, egilekidetasunaren baitan jaio zen, hiru amarekin batera. Haien semeak hil egin zituen Kolonbiako armadak, borrokan baja gisa aurkezteko. Hitzetan eta argazkietan adierazitako istorioen narrazio bat da, botereak ezkutatzen dituen interes ekonomikoak eta lurraldekoak agerian uzten dituen

ikerketa sakon batek lagunduta eginikoa. Izan ere, Kolonbian gaizki izendaturiko "positibo faltsu" gisa ezagutarazi zena ez da soil-soilik, normalean sinplifikatu ohi den bezala, militar batzuek hilketa horiek egin izana, hobarien eta igoeren legediaren ondorioz edo hildakoen zenbaketaren politikak bultzatuta.

Horrez gain, Entrelazandok sarbide libreko espazio birtual bat du, gure lanaren zati bat ezagutu ahal izateko eskuragarri dagoena. Hausnarketak, dokumentalak, kronika idatziak eta bisualak, sorkuntza artistikoak; horiek guztiak webgunera igotzen ari dira sarean zabaltzeko. Hala, gure esperientzien zati bat komunikabide alternatiboetan argitaratu genuenean bezala egin dugu, gerora gurekin bat egin duten komunikabideak izan baitira.

Bukatzeko, etengabe errepikatzen den galdera: nola egin ahal izan dugu hori guztia? Gakoa hori egitera animatzea besterik ez da izan, eskura ditugun tresnekin, eta finantzatzaile baten interesen eta agenden mende ez egotearen kontzientzia eta askatasuna baliatuta. Horrexegatik tematu gara produktore gisa eta, orain, argitaletxe autogestionatu eta independente gisa mantentzen.

Ariel Arango Prada eta Laura Langa Martínez.



UNIVERSIDAD
DE MÁLAGA



Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

- ProCIE ikerketa-taldea
Hezkuntza arloko ikerketa eta berrikuntzako
unibertsitate sarea REUNI+D
- <https://proyectoecoec.wordpress.com/procie>

Bestelako ikerkuntza bat, bestelako hezkuntza baterako, bestelako gizarte baterako

ProCIE ikerketa-taldean (gaztelaniaz, *profesorado, comunicación e investigación educativa*), hogei urte daramatzagu ikerkuntzari buruz hausnartzeko etengabeko prozesuan, aldaketarako eta gizarte-eraldaketarako tresna moduan ulertuta. Hasiera batean ikerkuntzako estrategia moduan planteatu zen arren, prozesu honen logika sozial eta politikoak ikuspegi konplexu eta zabala izatera eta hiru alderdi hauek kontuan hartzerantz bultzatu gintuen: ikerkuntza, hezkuntza eta gizarte-eraldaketa. Gure jarrera printzipio baten inguruan finkatzen joan da: hiru alderdi horiek ikuspegi epistemologiko, politiko eta antropologiko isomorfo edo, bestela, bateragarri bati dagozkio. Hau da, hirurak eremu semantiko berekoak dira (atrebentzia onartzen bazaigu), arazo berari egiten diotelako aurre: subjektu eta kolektiboek mundua ulertzeko duten modua, eta mundu hori aldatzeko haietan eragiteko duen gaitasuna.

Hausnarketa honetan, hau da gure abiapuntua: Zer zentzu dauka hezkuntza-arloko ikerketak subjektu, kolektibo eta erakundeentzat? Zertan laguntzen die? Zer eraldaketa eragiten ditu? Mundu akademikoaren gaur egungo egoera eta haren kapitalismo kognitiboa kontuan hartuta, zaila da erantzun baikorra ematea. Merkatu akademikoa gizartearen aldaketa-premiei bizkarra emanez bizi da, bere estandar eta sailkapenetan murgilduta. Beraz, beharrezkoa da bestelako jarrera epistemologiko, metodologiko, ideologiko eta politikoa izatea.

Jarrera hori eraikitzen joan garen esparrua aipatu dugun triangeluan prestatzen da. Irakatsi, ikertu eta mundua eraldatzeko zereginak elkarri lotuta egon behar dute, eta prozesu beraren parte izan. Horregatik, gure irakaskuntza gure ikerkuntzarekin

lotuta dago, hala kontzeptuen planteamenduari nola eguneroko praxiari dagokienez. Hau da, ikertzen dugun bezala irakasten dugu. Eta bi prozesuok gizarte bidezkoago, solidarioago eta askeago bat lortzeko konpromiso soziopolitiko batekin daude lotuta. Eta horrek ez gaitu jarrera alderdikoi batean jartzen; aitzitik, gizatasunak eraldaketarako prozesu kolektiboan duen zentzuari buruzko ikuspegi erradikal antropologiko batera garamatza.

Horregatik, arlo publikoa eraikuntza kolektibo demokratikorako gune bakarra dela eta gizarte baten arrakastaren atalasea, bikainek eta boteredunek beharrezkoak, marjinatuak eta baztertutakoak ezartzen dutela aldarrikatzen dugu. Beraz, gure irakaskuntzako eta ikerkuntzako ekintzak eskola publikoarekiko konpromisoa bilatzen du, edozein motatako gabeziak eta bazterkeriak testuinguruetan.

Proposamen horren abiapuntua ikuspegi narratiboan dago, estrategia metodologiko moduan ulertua; are gehiago, funtsean, estrategia ideologiko eta epistemologiko moduan ulertua. Errealitatea taldean sortzen goazen kontakizunetatik eraikitzen da, halako moldean non subjektu bakoitza kontakizun horien bidez bizitzen den, batzuekin eta besteekin eta testuinguruekin harremanak sortuz. Esan dezakegu kontakizunak ez direla ez aseptikoak ez neutralak. Aitzitik, subjektu bakoitzak, esparru kolektibo batean, munduan duen kokapena eraikitzen duen modutik abiatuta eraikitzen dira.

Horrela ulertuta, narratiboki ikertu eta irakasteko, lehenik eta behin, subjektu bakoitzaren errealitatearen kontakizuna beste edonoren kontakizuna bezain baliozkoa dela ulertu behar da, errealitateari buruz

duen ezagutza den aldetik. Esan daiteke ez dagoela besteak baino errealagoa den kontakizunik; aitzitik, errealitatearen askotariko interpretazioak daude, tradizioen, historia pertsonalen eta pertsona bakoitzak bere testuinguruetan duen kokapenaren ondorioz. Horrek jarrera deskolonial batean kokatzen gaitu, gaur egungo sisteman indarrean dagoen pentsamendu zientifiko, mendebaldeko, klasista, patriarkal, liberal eta positibistaren hegemonia apurtzen dugulako.

Bigarrenik, aldarrikatzen dugu beharrezkoa dela errealitateari buruzko kontakizun bakoitzean kokatutako ezagutza partikular hori beste batzuekin lotzea, halako moldez non diskurtso-prozesu bat sortuko den, zeinak zalantzan jarriko dituen kontakizun propioak, ezagutza konplexuago, zabalago, demokratikoago eta anitzago batera heltzeko. Kontua ez da adostasun batera heltzea, munduari buruzko ikuspegi ireki eta anitzagoa sustatzea baizik, ikuspegi desberdinen elkarbizitza ahalbidetzeko, helburu komuna lortze aldera: mundua sistema bidezkoagoa eta solidarioa bihurtzea. Beraz, bestelako epistemologia bat dela esan dezakegu, ikerketaren eta irakaskuntzaren bidez ezagutza eraikitzeko.

Hirugarrenik, bestelako kontakizun konplexu, askotariko eta demokratiko horren eraikuntza kolektiboak zentzua du, bestelako errealitate bat eraikitzen den aldetik. Ezagutza hori elkarrizketa eta eztabaida demokratikoan sortu denez, kontakizun berri horrek aukera ematen digu ekitatean, askatasunean eta elkartasunean oinarritutako errealitate demokratiko bat iragartzeko. Hala, bestelako kontakizun baten ondoriozko errealitate desberdin bati buruz hitz egin dezakegu; kontakizun hori printzipio ideologiko eta epistemologiko desberdinetatik abiatzen da, zeinak gaur egungo hegemoniekin (patriarkatua, kapitalismoa, mendebaldeko pentsamendu positibista eta klasista) apurtuko duten.

Kezka horiei zentzua emango dion bestelako ikuspegi horren bila, planteamendu batzuk garatu ditugu, hausnarketa kritiko jarraitu eta erradikal batetik aurrera egiteko.

- Ikerketak gurekin lanean ari diren talde eta erakundeekin dugun loturatik soilik dauka zentzua. Era berean, irakasleen prestakuntzaren eta irakaskuntzaren esanahia aldatu egiten da, testuinguru eta errealitate partikularretan gorpuzten direnean. Gure kasuan, prestakuntzarako ordezko proposa-



Irudia: José Ignacio Rivas Flores.

mena egiten dugu, gizarte-balioa duten errealitate instituzional eta sozial partikularretan parte hartuta.

- Ikerkuntzaren eta prestakuntzaren jardunbidearen oinarrian, elkarrizketa eta eztabaida irekiko harreman demokratiko eta horizontalak daude, zeinak subjektuen ezagutzei dagokien balioa ematen dieten.
- Hezkuntzako eta ikerkuntzako prozesuak performatiboak dira; hala, martxan jartzen direnean, ezagutza epistemologiko, sozial eta politiko zehatzak erabiltzen dira eta erakundeetan islatzen dira. Beraz, beste printzipio batzuk erabiliko dituzten agertoki eta testuinguru desberdinak sortu nahi ditugu.
- Ideia horretan oinarrituta, errealitatearen kontakizun alternatiboak adierazi eta irudikatzeko beste modu batzuk planteatzen ditugu, hizkuntza idatziak jakintza bideratzeko modu bakar moduan duen hegemoniarekin apurtzeko. Esaterako, artearen askotariko adierazpenak, zapalduaren antzerkia, ikusizko adierazpena, eta abar kontatzeko modu desberdinak dira, eta bestelako edukiak hartzen dituzte barne.

José Ignacio Rivas Flores
(Málagako Unibertsitatea)

begirada konprometituak



Izenburua: EZLN comparte por la humanidad

Tokia, urtea: Chiapas estatua (Mexiko), 2016

Produkzioa: Entrelazando

Ikus-entzunezko errealizazioa: Ariel Arango

Iraupena: 18 minutu

Sinopsia. Dokumental hau 2016an grabatu zuten, Mexikoko hego-ekialdean, Askapen Nazionaleko Armada Zapatistak (EZLN) antolatu zuen «CompArte por la humanidad» jaialdiaren esparruan; hain zuzen ere, urte horretan 22 urte betetzen ziren altxamendu armatutik eta 13 urte erresistentziako eta errebeldiako ibilbide autonomoa hasi zenetik, hots, Karakolak eta Gobernu Oneko Batzarrak sortu zirenetik. Egun horietan, halaber, irakasleek hiru hilabete zeramaten greban, Mexikoko gobernuak inposatu nahi zuen hezkuntza-erreformaren kontra. Horregatik, zapatistak antolatu egin ziren eta gizateriari arte- eta elkartasun-lezio bat eman zioten, Hezkuntzako Koordinakunde Nazionalaren alde eginez (Entrelazando).

Hemen eskuragarri: <<https://entrelazando.com/portfolio-item/ezln-comparte-por-la-humanidad>>

Izenburua: Lorena, la de pies ligeros

Tokia, urtea: Mexiko, 2019

Zuzendaritza: Juan Carlos Rulfo

Musika: Leonardo Heiblum

Fotografia: Hatuey Viveros

Iraupena: 28 minutu



Sinopsia. Lorena Ramírez Mexikoko iraupen-lasterkari bat da, Raramuri edo Tarahumara etniakoa (Chihuahua mendizerrakoak, jatorriz), eta lehen postuan geratu zen Ultra Trail Cerro Rojo lasterketan, 12 herrialdetako 500 atletaren artean. Beti huarache motako oinetakoak eta bere etniako jantzi tradizionalak janzten ditu, eta ez du erabili nahi korrika egiteko ohiko kirol-arropa (Filmaffinity).

Hemen eskuragarri: <www.netflix.com/title/80244683>

argitalpenak



Izenburua: Modernidades contrahegemónicas

Egilea: Hainbat egile

Biltzailea: Marco Aparicio Wilhelmi

Tokia, urtea:artzelona, 2019

Argitaletxea: Icaria

Sinopsia. Epe laburreko helburuak dituen modernotasun ikaragarri asimetrikoaren aurrean, herri indigenak subjektibotasun politiko disidente eta antikoloniala eraikitzen ari dira, beste modernotasun eta gaurkototasunak sortzen dituen subjektibotasuna, hain zuzen. Liburu honek beste modernotasun horren adierazpenetako batean jartzen du arreta: berezko Zuzenbidea edo talde-antolamendurako berezko moduak izateko eskubidean. Alabaina, gure asmoa ez da aniztasuna nola egokitu beharko litzatekeen itauntzea, gizarteak osatzeko ditugun moduak errotik birpentsatzea baizik. Desberdintasuna eta gatazka kezka- eta zalantza-iturri moduan; zalantza eta kezka eraldaketa-iturri moduan. Lan hau osatzen duten ekarpenek bizitako ezagutza kokatua dakarkigute. Ameriketako (Kolonbia, Guatemala, Ekuador eta Mexiko) errealitatean aniztasunetan zehar dabilzan hausnarketa partekatua dira, eta agerian jartzen dituzten desberdintasun, gatazka eta zalantzek sormenezko aurkaratzez betetako pentsamendu bat mugiarazten dute (Icaria editorial).

Izenburua: Guardias indígenas, afrodescendientes, campesinas.

Trayectos y desafíos

Egilea: Axel Rojas eta Vanessa Useche

Tokia, urtea: Kolonbia, 2019

Argitaletxea: Bakearen aldeko Kolonbiar eta Alemaniar

Institutua (CAPAZ) eta Caucaoko Unibertsitateko Ikerketen Errektoreordetza



Sinopsia. Historia politikoaren memoriaren eta lurraldeen defentsaren aldeko konpromisoa hartuta, egileek Kolonbiako hego-mendebaldeko Cauca departamenduko guardien historia berreraiki nahi dute; guardiok indigenak, nekazariak eta afrikarren ondorengoak dira. Helburu hori lortzeko, argitalpenak hiru gai lantzen ditu: lurraldea babesteko estrategia (indigenen, nekazarien eta afrikarren ondorengoen historia politikoa), guardia indigenak, nekazariak eta afrikarren ondorengoak (lurraldeen babesa eta bakearen eraikuntza) eta erronkak (autonomia eta lurralde-bakea eraikitzea gatazkaren ondorengo egoeran).

Argitalpenak agerian jartzen ditu landa-eremuko herriek aurrez aurre dituzten askotariko erronkak eta horiei aurre egiteko azken hamarkadetan izan dituzten eraldaketak. Hitzarmen-ondorengo testuinguru batean, autonomia eta lurraldeen kontrola gauzatzera eta bakea eraikitzea bideratutako proiektuak eraikitze ahaleginak biltzen ditu; testuinguru horretan, gatazka, desagertu beharrean, zatitu eta eraldatu egiten da (CAPAZ).

Hemen eskuragarri: <www.instituto-capaz.org/wp-content/uploads/2020/02/Cartilla-Guardias-indigenas-afro-descendientes-campesinas-1.pdf>

erakundeak

Taldearen izena: Asociación Gitanas Feministas por la Diversidad

Eragin-eremua: Madril

Webgunea: www.gitanasfeministas.org



Borrokarako idealak. Espainiako ijitoen komunitatea geldialdi sozioekonomiko eta politikoko egoeran dago gaur egun. Oraindik ere, ijitoen gizarte-maila, ikusgaitasuna eta eragin politikoa ahulak dira, estereotipoen mende daude eta gizarteratzearen eta bazterkeriaren arteko jolas aldakor batean sartuta daude; horregatik, ezin dute herritartasun osoaz eta gizarte-ondasunen benetako partaidetzaz gozatu. Emakumeei dagokienez, egoera hori are larriagoa da, beren kulturaren barruan eta horretatik kanpo jasaten dituzten genero-desberdinkerien ondorioz, eta beren irudiar, adorea eta parte hartzeko gaitasunari kalte handia egiten dieten estereotipo eta aurreiritzien mende daude.

Gure azterketak ikuspegi feminista komunitario batetik abiarazten dira, kontuan hartuta generoarekin, etnia-jatorriarekin/arrazakeriarekin eta gizarte-klasearekin/pobretzearekin lotutako auziak. Azterketa feminista erromani horri esker, gure erakundearen ekintza-ikuspegia agerian jarri da; izan ere, hainbat emakumeren eskuetan daude benetako protagonista eta aktibista bihurtzeko beharrezkoak diren erresistentzia eta gure komunitatea aldatzeko gaitasuna, hain zuzen ere, beren herria, historia eta identitatea duintzeko eskatzen hainbat urte daramatzaten emakume horien eskuetan (Asociación Gitanas Feministas por la Diversidad).



Taldearen izena: Grassroots Global Justice

Eragin-eremua: Estatu Batuak

Webgunea: <https://ggjalliance.org>

Borrokarako idealak. Grassroots Global Justice (GGJ) erakundea Estatu Batuetako 60 oinarri erakunderen (GRO) baino gehiagoren arteko aliantza da; oinarri erakundeok pertsona langile eta pobrez eta pertsona beltzen zenbait komunitatez osatuta daude. GGJ erakundeak harremanak eraikitzeko, politikoki lerrotzeko eta lidergo transformatzailea garatzeko epe luzeko prozesu batean sartu ditu GRO taldeak. Elkarren artean lotzen ditugu beren egoitza Estatu Batuetan duten GRO taldeak eta munduko zenbait gizarte-mugimendu (justizia klimatikoaren, genero-arloko justiziaren, gerraren amaieraren eta beste ekonomia baterako trantsizioaren alde lan egiten dutenak). Eta sare hori da gure ikuspegiaren esparrua, oinarritzko justizia globala eraikitzeko: gerrarik gabe, berotzerik gabe, ekonomia feminista baterako trantsizioa eraikiz, Martin Luther King doktorearen filosofiaren esparrua zabalduz pobrezia, arrazakeria eta militarismoari buruz, eta, azkenik, klima-aldaketaren eta feminismoaren gaur egungo arazoak integratuz.

GGJ erakundeak politikoki independentea den mugimendu bat eraiki nahi du, lau estrategiaren bidez: 1. Oinarri erakundearen sektore osoaren estrategia eta jardunbidea lerrotzea; 2. Oinarriko internazionalismoa; 3. Hezkuntza politikoa eta herri-hezkuntza, arrazaren, generoaren eta klasearen berariazko esparruan; eta 4. Lidergo transformazionala (Grassroots Global Justice).


ezinbesteko agenda

Ekitaldia: Black Barcelona topaketaren 5. urteurrena

Deialdia: Afro-espainiarren eta afrikarren ondorengoen Hibiscus elkarte

Lekua eta eguna: Bartzelona. 2020ko ekainaren 11-14a

Informazio gehiago: www.verkami.com/projects/25596-black-barcelona-encuentro-2020



Black Barcelona topaketa gune fisiko bat da, afrikarren ondorengoen, afrikarren eta aliatuen komunitateari agerikotasuna eta dagokion aitorpena emateko eta berorien batasuna lortzeko. Gure asmoa da afro kultura hurbiltzea, berorri buruz dauden estereotipoak eta ezjakintasuna hausteko eta gure bi kulturak elkartetik jaiotzen den kultura erakusteko, zenbait arte-diziplinaren eta topaketaren bidez: literatura, antzerkia, eztabaidak, musika, gastronomia eta aisialdiko jarduerak. Helburua da topagune bat izatea, afrikarrekiko eta afrikarren ondorengoekiko dagoen ikuspegia eraldatzeko, Espainian bertan jaiotako zenbait belaunaldi daudela helarazteko eta, beraz, identitate-mailan ere bertakoak garela aldarrikatzeko, afro komunitateak egindako ekarpen sozial eta kulturalen bidez (Black Barcelona).

Ekitaldia: Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala

Deialdia: https://decidim-barcelona-organizations-production.s3.amazonaws.com/decidim-bcn-organizations/uploads/decidim/attachment/file/2164/Qui%C3%A9n_es_qui%C3%A9n__CAST_.pdf

Lekua eta eguna: Bartzelona. 2020ko ekaina eta urria

Informazio gehiago: <https://transformadora.org>

FSMET

FORO SOCIAL MUNDIAL
DE LAS **ECONOMIAS**
TRANSFORMADORAS

Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala (FSMET) munduko zenbait tokitan ekonomia alternatiboaren arloan dauden tokiko eta nazioarteko mugimenduak bateratzeko prozesua da; mugimendu horiei ekonomia eraldatzaile deritzegu. Prozesu honen helburu nagusia da pertsonak eta ingurunea ekonomiaren erdigunean jarri nahi dituzten gizarte-mugimenduak eta ekimenak hurbiltzea. Mugimendu eta ekimen horien xedea erauzketan, hazkunderan, lehiakortasunean eta merkatuan oinarritutako ekonomia suntsitzea da; hain zuzen ere, elkarrekin lan eginez aliantzak eta ekimen estrategikoak sortu eta indartzen dituzten lankidetzako gizarte erresilienteak lortzeko borrokatzen dute.

Gure hausnarketa, ekarpen eta esperientziak gorpuztu nahi ditugu, bi une garrantzitsutan: ekainean (topaketa birtuala, web-mintegi eta/edo bilera moduan zenbait jarduera antolatuta) eta urrian (Ekonomia solidarioaren Kataluniako Azokako topaketa) (FSMET).

matxino artean
en rebeldía

Carta del Ejército Zapatista para el mundo

Sobre como lo estoy viviendo:

Con tranquilidad, rebeldía y prudencia. En la comunidad, es decir fuera de la ciudad, la situación es muy otra; los alimentos están en la huerta, hay reservas de maíz y frijol, todos los días tomamos aguas calientes medicinales, ejercitamos el cuerpo con el trabajo agrícola y de pequeña ganadería.

El pánico no es tan grande porque no hay suficiente tiempo como para perder el día viendo Fake News, teorías de conspiración y las cadenas del mal gobierno. Las relaciones sociales son las justas y necesarias, la solidaridad es absoluta con el conocido y el extraño.

La vida no para, no hay como quedarse en casa, los animales morirían de hambre y las chakras podrían perderse.

No hay expectativas sobre ayudas del estado, el estado históricamente ha abandonado y permitido la explotación de estas tierras.

Los niños sin clases en la escuela aprenden más de su cultura y lengua en casa con sus familias, en especial con sus abuelas y abuelos.

Sobre los pensamientos políticos que me atraviesan: Las ciudades hijas de la modernidad capitalista están diseñadas para enriquecer a las élites en cada crisis, para desaparecer a los más vulnerables y dejar en casa, inmóvil, a una clase media asustadiza y cómoda, que no hace otra cosa que consumir información de pánico y gastar su poco dinero guardado como si fuera el fin del mundo.

El fin del mundo comenzó con el triunfo del capitalismo y su complejo sistema de destrucción de la vida y los elementos naturales que sostienen el planeta.

No sólo tenemos una emergencia sanitaria, tenemos una emergencia climática, de escasez de agua, de refugiados víctimas de la guerra en medio oriente, del narcotráfico en latinoamérica y refugiados ambientales por la destrucción de sus ecosistemas de vida, tenemos un incremento exponencial de femicidios en todos los continentes y una corrupción cada vez más descarada en todos los niveles de gobierno; la crisis es sistémica y la solución lo debe ser igual.

No basta con lavarnos las manos y ponernos una mascarilla, tenemos que construir otros mundos posibles y tejer nuevas arcas.

Sembrar nuestros alimentos, organizarnos, recuperar la medicina natural, apoyarnos en la ciencia autónoma, crear más escuelas, colegios y pluriversidades libres, encontrar grietas en las crisis y re-plantearnos el modo de vida colectiva, es la tarea de las y los rebeldes, junto a muchas a otras que surgan de los acuerdos asamblearios.

Ánimo en este tiempo en el que estamos viviendo uno de los síntomas del colapso global, este virus es uno de los muchos que tiene infectada a la humanidad y al mundo.

No me quedo en casa, nuestra tarea como insurgentes es organizarnos con los de abajo, con los del páramo y la selva, para construir mundos muy otros donde el virus del capitalismo-patriarcal y todos sus males: pandemias, extractivismo, machismo, colonialismo, discriminación, violencia, ecocidios, etnocidios, imperialismo y sistema de partidos políticos, no puedan entrar.

Iturria: www.lahaine.org/mm_ss_mundo.php/carta-del-ejercito-zapatista-para